

1.991

LEITZAKO

TIBURZIO DONOZAREN

FASTAK

ABUZTUAK 10-15



PLAZAOLA

KOLDO FAGOAGA

LEITZAKO ALDIEKARIA

1.991 PESTETAKO EGITARAUA

Leitzar eta bisitari guztiei, agur

Herrikofestak ospatu beharrean aurkitzen gara urtero bezela, 91eko hamarkadaren asiera honetan.

Urte berezia Leitzarrentzat aurtengoa, zeren ekintza ugari antolatu dira eta beharrezkoak diren obra asko aurreratzen ari dira, herri honek merezi duen irudia har dezan.

Ez da unea lan horiek aipatzen asteko, baina gure esker ona eman nahi diegu beren lankidetasuna eta jarrera ona azaldu duten Leitzar guztiei, ari diren obra lanak ongi eta azkar bukatzeko.

Era berean eskertu nahi digu baita ere, festa hauek antolatzen parte artu duen gaztedia.

Aipatu nahi dugu azken urte hauetan, herriko kaleetan .sortzen zaigun eragozpen bizia, hau da, hotxeek sortzen duena.

Herritar askoren nahia litzateke kalean lasaiago ibiltzeko bidea izatea, eta hortarako komeni litzateke bertako jendeak kotxea etxean uztea, festa egun hauetan, Leitzako distantziak ez bait dira hain haundiak, baserritakoak ezik.

Gure nortasunari eutsiz, humore ona eta elkartasuna jabe izan daitezela jai egun hauetan.

*¡¡¡Jai zoriontsuak opa dizkizuegu
Leitzar eta bisitari guztiei!!!*

Saludo a todos los Leitzarras y visitantes

Nos encontramos, como todos los años, en la grata necesidad de celebrar las Fiestas Patronales.

Es este un año especial para los Leitzarras ya que se están desarrollando los trabajos y obras que tanta falta hacía y que van a dar a este pueblo la buena imagen que se merece.


No es este el momento de enumerar estas obras, pero queremos agradecer a todos los que han de mostrado su profesionalidad y buen hacer.

Así mismo agradecemos a los jóvenes que han tomado parte en la organización de estas Fiestas.

Sería del agrado de muchos Leitzarras que, para poder andar más tranquilos por el pueblo, evitásemos el uso innecesario de nuestros vehículos, ya que las distancias de Leitza no lo requieren, a excepción de los caseríos.

Deseamos que el buen humor y la amistad predominen en estas Fiestas, como es nuestra costumbre.

*¡¡¡Os deseamos Felices Fiestas!!!
a todos los Leitzarras y visitantes*



Leitzako Udalak Aurrera Kirol Elkartearen laguntzaz
1991ko Abuztuak 10, 11, 12, 13, 14 eta 15ean Tiburtzio
Donearen ohoretan ospatutako pesten egitaraua.

Programa de festejos organizados
por el Ayuntamiento de Leitza,
en colaboración con el
C.D. AURRERA, en honor de su
patrono San Tiburcio y que
tendrán lugar los días 10, 11,
12, 13, 14 y 15 del mes
de agosto de 1991

1.991 PESTETAKO EGITARAU


28 UZTAILEA
JULIO

IGANDEA



Goizeko 9etan

Pestetako egitarauen banaketa eginen da. Leitzako gazteak eskean ibiliko dira etxez-etxe soinua joaz (gogoan izan dirua kaxa giltzatua dutenei bakarrik eman diezaiekezuela)



ARRATSALDEKO 6etan: Nafarroko herri kirolaren finala.

ARRATSALDEKO 7,30etan: Dantzaldia plazan NAYGI taldearekin.


ARRATSALDEKO 8tan: Kalejira ARTADI txarangarekin.

GAUEKO 11tatik aurrera: dantzaldia plazan NAYGI taldearekin goizalde arte.

4 ABUZTUA
AGOSTO

IGANDEA

UMEEN EGUNA




Goizeko 8retan: Diana Txistulariekin.
Goizeko 9etan: Zaldi txikiak (poniak) plazan.
Goizeko 10,30etan: Meza Nagusia "Korporazio" berria dantzari ttikiekin batera joanen delarik. "Korporazioa" Udaletxean bilduko da 10, 15etan.
Goizeko 11,30etan: Umeentzat jokoak.
Arratsaldeko 4etan: Txirindulariak herrian zehar. Ondoren zaldi ttikiak plazan.
Arratsaldeko 5,30etan: Dantzari txikien saioa eta ondoren bonba japoniarrak.
Arratsaldeko 7retan: Herriko trikitalarien saio bikain bat. Arratsaldeko 8retan: Kalejira ARTADI txarangarekin.
Arratsaldeko 8,30etan: Dantzaldia HARITZA taldearekin. Gaueko 12etan: Berriz ere dantzaldi HARITZA taldearekin.

1.991 PESTETAKO EGITARUA

10 ABUZTUA
AGOSTO

LARUNBATA




PESTA BEZPERA

Eguerdiko 12etan: Ezkila jotzea eta etxafuegoak botatzea pestei hasiera emanez. Ondoren kalejirak txistulari eta ARTADI txarangarekin eta buru-haundiak.

Arratsaldeko 4 etan: Txirrindulari jubenilak
Arratsaldeko 7,30 etan: Dantzaldia GAUBELA taldearekin

Gabeko 12etan: Dantzaldia goizalde arte
GAUBELA taldearekin


Goizeko 3retan: ligatzeko ingurutxo



11 ABUZTUA
AGOSTO

IGANDEA

TIBURTZIO DONEAREN EGUNA



Goizeko 7,30etan: Txistulari eta ARTADI txarangak jotako Dianak.

Goizeko 9etan: Entzierroa eta zezenak plazan.

Goizeko 10,30etan: Meza Nagusia Korporazioa Aurrerako dantzariekin joanen delarik.

Eguerdiko 12etan: AURRERAKO ezpatadantzariak plazan.


Ondoren pilota partiduak.

Arratsaldeko 5,30etan: Zezenak plazan.

Arratsaldeko 6,30etan: KONPARSA ETA ERRALDOIAK

Arratsaldeko 8retan: Dantzaldia AKELLARRE taldearekin



Gaueko 12etan: Dantzaldia AKELLARRE taldearekin



1.991 PESTETAKO EGITARUA

12 ABUZTUA
AGOSTO

ASTELEHENA



Goizeko 7,30etan: Dianak, txistulari eta ARTADI txarangarekin. Goizeko 9,30etan: Enzierroa eta zezenak plazan.

Goizeko 11,30etan: Musica banda plazan

Arratsaldeko 5,30etan: Zezenak plazan.

Arratsaldeko 6,30etan: AURRERAKO Dantzarien saioa plazan. Ondoren bonba japoniarrak.

Arratsaldeko 8retan: Dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin. Gaueko 12etan: JOSELU ANAIK taldearen beste saio bat.

13 ABUZTUA
AGOSTO

ASTEARTEA

Goizeko 7,30etan: Txistulari eta ARTADI txarangarekin dianak.

Goizeko 9,30etan: Entzierroa eta zezenak plazan.


Goizeko 11tan.: Herri Kirolak

Arratsaldeko 5,30etan: Zezenak plazan.

Arratsaldeko 7etan: Plazan RAFA ALDASORO MAGOA.

Arratsaldeko 7,30etan: Pilota partidu profesionalak pilota lekuan.

Arratsaldeko 8retan eta gaueko 12etan: Dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin.



14 ABUZTUA
AGOSTO

ASTEAZKENA

Goizeko 7,30etan: Dianak txistulari eta txarangarekin.

Goizeko 9,30etan: Enzierroa eta zezenak plazan.

Goizeko 11tan: Bertsolariak zinean:
LIZASO-EUSKITZE-PEÑAGARIKANO-
MAÑUKORTA.


Eguerdiko 12,30etan: Sagardo degustazioa plazan.

Arratsaldeko 5etan: Zezenak plazan.

Arratsaldeko 6,30etan: KUKUBILTZO
antzerki taldea.

Arratsaldeko 8retan: Dantzaldi ARKAITZ
taldearekin.


Gaueko 12etan: Dantzaldia ARKAITZ
taldearekin.



15 ABUZZTUA
AGOSTO

OSTEGUNA

«EZKONDUTAKOEN EGUNA»



Goizeko 7,30etan: Dianak txistulari eta ARTADI txarangarekin.

Goizeko 9,30etan: Entzierroa eta zezenak plazan.

Goizeko 11etan: NAFARROKO HARRIASOTZAILE TXAPELKETA.

Goizeko 11,30etan: Larbando Futbol zelaian 3. mailako futbol partidua.

Eguerdiko 2,30etan: Aurrerako bazkideen bazkaria.

Arratsaldeko 6retan: Ezkonduen entzierroa eta zezenak.

Arratsaldeko 7retan: Ezkonduen ingurutxo.

Arratsaldeko 8retan: eta gaueko 12etan: Dantzaldia GAURKO-BERRI taldearekin.

PROGRAMA DE FIESTAS PATRONALES 1.991

28 de JULIO - Domingo

Se efectuará el reparto de programas a cargo de los jóvenes del pueblo acompañados de música (solamente se debe entregar el dinero a aquellos que vayan provistos de caja precintada).

6 de la tarde: Campeonato deporte rural.

7 de la tarde: Kalejiras a cargo de la txaranga ARTADI.

7 de la tarde y 11 de la noche: Bailables a cargo del grupo NAYGI

4 de AGOSTO -Domingo

«DIA DEL NIÑO»

8 de la mañana: Diana a cargo de los txistularis.

9 de la mañana: Ponneys (caballos) en la Plaza.

10,15 de la mañana: Serán los mismos niños los que representen a nuestro Ayuntamiento, siendo elegidos estos, entre los dantzaris pequeños. A esta hora y en la plaza se ofrecerá la vara del Alcalde a estos niños, dejando la representación del pueblo en sus manos.

10,30 de la mañana: La nueva "corporación" acompañada del resto de los dantzaris txikis, acudirá a la Misa Mayor.

4 de la tarde: Carrera ciclista. Después ponneys en la Plaza.

5,30 de la tarde: Actuación de los dantzaris txikis del Aurrera y a continuación bombas japonesas.

7 de la tarde: Actuación de los trikilaris del pueblo.

8 de la tarde: Kalejiras a cargo de la txaranga ARTADI.

8,30 de la tarde y 12 de la noche: Bailables con el grupo HARITZA

10 DE AGOSTO - Sabado

Inicio oficial de las fiestas con repique de campanas y disparo del cohete. A continuación Kelejiras y cabezudos a cargo de la

txaranga Artadi y los Txistularis.

4 de la tarde: Carrera ciclista

8 de la tarde y 12 de la noche: Bailables con el grupo GAU BELA.

11 DE AGOSTO - Domingo

7,30 de la mañana: Dianas a cargo de los txistularis y la txaranga ARTADI.

9 de la mañana: Encierro y embolados en la plaza.

10,30 de la mañana: La Corporación acompañada por los dantzaris del Aurrera acudirá a la Miisa Mayor.

12 del mediodía: Actuación de los ezpatadantzaris del Aurrera. A continuación nartidos de pelota.

5,30 de la tarde: Vaquillas en la Plaza.

6,30 de la tarde: COMPARSA DE GIGANTES Y CABEZUDOS.

7,30 de la tarde: Partidos de Pelota.

8 de la tarde y 12 de la noche: Bailables a cargo del grupo AKELARRE

12 DE AGOSTO - Lunes

7,30 de la mañana: Dianas a cargo de los txistularis y la txaranga ARTADI.

9 de la mañana: Encierro y embolados en la plaza.

11 de la mañana:

Banda de MÚSICA en la plaza

5,30 de la tarde: Embolados.

6,30 de la tarde: Dantzaris del Aurrere. A continuación bombas japonesas.

8 de la tarde y 12 de la noche: Bailables a cargo del grupo JOSELU ANAIK

13 DE AGOSTO -Martes

7,30 de la mañana: Dianas a cargo de los txistularis y la txaranga ARTADI.

9,30 de la mañana: Encierro y embolados.

11 de la mañana: Deporte rural.

5,30 de la tarde: Embolados.

6,30 de la tarde: Actuación de un Mago.

A continuación bombas japonesas.

8 de la tarde y 12 de la noche:

Bailables a cargo del grupo JOSELU ANAIK

14 DE AGOSTO -Miercoles

7,30 de la mañana: Dianas a cargo de los txistularis y la txaranga ARTADI.

9,30 de la mañana: Encierro y embolados.

11 de la mañana: Bertsolaris en el cine: LIZASO

• EUSKITZE

• PEÑAGARIKANO

• MAÑUKORTA.

12,30 de la mañana: Degustación de sidra en la plaza.

5 de la tarde: Embolados.

6'30 de la tarde: KUKUBILTXO

8 de la tarde y 12 de la noche: Bailables a cargo del grupo ARKAITZ

15 DE AGOSTO -Jueves

«DIA DE LOS CASADOS»

7,30 de la mañana: Dianas a cargo de los txistularis y la txaranga ARTADI.

9,30 de la mañana: Encierro y embolados.

11 de la mañana: CAMPEONATO NAVARRO DE HARRIJASOTZAIKES.


11,30 de la mañana: Partido de fútbol de 3,a división en Larbando.

2,30 de la mañana: Comida de los socios de Aurrera.

6 de la tarde: Encierro de los casados y embolados.

7 de la tarde: Ingurutxo de los casados.

8 de la tarde y 12 de la noche: Bailables a cargo de la orquesta HARITZA.



OHARRAK

- 1 **INCANSABLES** txarangak, egunero, eguerdi, arratsalde eta gabean herriko bazterrak alaituko ditu .
- 2 Buruhaundiak eguerdiero aterako dira txarangarekin batera.
- 3 Udala ez da kargu eginen zezenetan gertatzen diren istripuetaz.
- 4 Egitaraua, borondatearen truke, udaletxean eta tabernetan zabalduko da.
- 5 Aurten **PELOTA BERRIK** antolatutako pilota partidu profesionalen berri ere izango dugu. esku programen bidez, bertan lekua, ordua, e.a. zehaztuz.


AVISOS

1. La charanga **INCANSABLES** animará el pueblo todos los días de fiestas mañana, tarde y noche.
2. Los cabezudos saldrán todos los días junto con la charanga.
3. El ayuntamiento no se hace cargo de los accidentes que ocurran en las vaquillas .
4. El programa de fiestas se podrá obtener, a cambio de la voluntad en el ayuntamiento y en los bares.
5. Así mismo se informará debidamente sobre los partidos de pelota profesionales, organizados este año por **PELOTA BERRI**, mediante los correspondientes programas de mano.

PLAZAOLA

LEITZAKO ALDIZKARIA

14. ZENBAKIA



ANGEL ALDUNTZIN: BAKARRA ZEN; BERA BEZELAKOA

Leitzako txistulari eta atabalero zaharren istorioak biltzen hasi nintzenean, Angel Alduntzinengana bitartekoak biltzea pentsatu nuen, eta ailegatu naiz harengana ere. Aurten egiten dira hamar urte, Angel Alduntzin hil zela, baina, orduan ere, etzen oharkabean pasa hark utzi zuen hutsa; begira bestela **1981eko Plazazolaren 2. aleak** Angelentzat ezazkien omenak, eskerrak, eta aipamen ugariak. Angel hil zeneko urte gogoangarri hartan esan ziren apurrak hornitzera dator idazlan hau; izan ere, Angel bezelako gizonek utzitako itzala umotzen joaten baita urteak pasa ahalean. Etzazula pentsa, beraz, lán hau behin betikoa denik.

Angel Alduntzinen familiko atze aurreak:

Angelen aitona berez leitzarra bazen ere Ameriketara joan zen bizitzera, eta **Argentinan, Patagoniako Juárez** herrian jaioa zen **Jose Alduntzin**, Angelen aita zena; baina handik atzera Leitzera, aitaren sorterrira etorri zen aita **Jose Ramon** eta bi arrebakin, **Juanita** eta **Antoniakin**. Beste anai bat eta bi arrega monja han geldituko ziren. Hemen zurgintzan jarri zen. Oso zurgin ona omen zen, eta bihotz oneko gizona; oraindik ba omen dira hark kobratu gabe utzitako lanak Leitzan eta inguruko herri askotan. Orduan ez baitzen diru haundirik izaten, eta **Josek** ez balio jendea gogorrean hartzeko.

Argentinatik etorri eta belaxe, **Mikoneko Josefa Kanflankarekin**, bere lehengusu propioarekin, ezkonduko zen Jose; izan ere, Joseren aita, **Jose Ramon Alduntzin**, eta bere emazte Josefaren ama, **Lorenza Alduntzin**, senidek baitziren; hala, bi lehengusuak 1908.ko abenduaren 15an ezkondu, eta **Lesakeneko herrin** jarriko ziren bizitzen. Hiru haur izanen zituzten han: **Luiza**, **Angel** eta **Bernarda**. Beraz, senidetan bigarrena, gerora **Angel ziztularia** izanen zena, hantxe sortua da mundura, 1916ko Uztailaren 7an.

Gero, Josek **Pastaingo herria** erosi, eta hara pasako ziren bizitzera 1921ean, eta han jaioko zen Angelen laugarren senidea, **Juanita**, gaur oraindik Angelen familikoekin bertan bizi dena, **Leitzako Plaza Zaharrera** ematen duen etxerik zaharrenetako batean; atalburuko harrian hantxe dauka oraindik urtea: **1681**.

Geroztik, oinordekotzaz etxe honetan biziko zen **Angel** bere denbora guzian. 1955eko Maiatzaren 6an ezkondu zen, 38 urte zituela, **Yoandegiko Margarita Zabaletarekin**. Sei seme alaba izandu zituzten: **Maria Engrazia**, **Joan Jose**, **Milagros** eta **Mari Carmen** bizi direnak; eta lehenbiziko haurra eta Joan Joseren ondorekoa, jaioberritan hilko zirenak.

Labur esanda, hauek izandu ziren Angel Alduntzinen familiko atzeaurreak, 1981eko Otsailaren 17an,

hezurretako minbiziak mundu honetatik eraman zuan arte.

Musikarako grina eta trebetasuna berez zetorkion:

Angelen aita **Jose** ez omen zen hain musikazalea, baina, ama bai. **Josefak** bertso eta kanta zahar asko omen zekien; arnas batera kantatzen omen zituen bata bestearen segidan; hura beti kantari; panderoa ere oso ongi jotzen omen zuen. Amaren bularretik esnea musikaren konpasean edanez hazia zen beraz, Angel, eta kantu goxo haien errimoa amaren esnearekin batera gorputz erraietaraino sartua geldituko zitzaion bere bizi guzira. Geroztik, ezpainekin ez bazen ziztuarekin, hura beti barrerik musikaren errimoa zeriola bizi izandu baitzen.

Hautzaroko urteak lizar edo gaztain adaxka batekin egindako txilibitua ezpainetan zuela pasako zituen. Bederatzi urte zituela, aita erregetan ebanozko ziztu dotorea ekarri zion arte. Geroztik harekintxe joko zuen beti, hil zen arte. Urte berean, 1925ean, Don Ramon Olazarane, garai hartan Leitzako elizan organista zegoenak, erakutsi zion Angeli txistuaren aurreneko notak jotzen. Hona nola gogoratzen duen orduko giroa **Joxemari Azpiroz, Tolatxeneko apezak**: *"Don Ramon Olazaraneekin genbiltzen gu musike pixkoat ikasten: elizeko kantak eta ola; eta gero txistu ikasten asi giñen belaxe: Angel Alduntzin, Bernabe eta ni. Talde ortako lenbiziko tanbor yotzallea Joxe Sukuntza Martxenekoa izandu zen; gero gure Klaudio zena asi zen tanborrakin"*.

Behin, Hilario Olazaran etorri omen zen anaia Ramonengana, mutikoxkor haiei txistua nola erakusten ari zen ikustera, eta entsaioa egin ondoren, hala esan omen zuen: Joxemari Azpirozek solfeorako Angelek baino erraztasun haundiagoa zuela, baina, ziztua hobeki gozatzen omen zuela Angelek. Klaudiok atabala zeinen ederki jotzen zuen ikusita berriz, harrituta gelditu omen zen gizona.

Geroztik, **Oyalden**, trenbidepeko belatsoan behi goardian zegoela, zistua joaz egoten omen zen Angel, elizan entsaiatzen zituzten piezak buruz ikasten, eta baita plazan Ebarixtori aditzen zizkion doinuak ikasten ere. Handik urte batzuren burura, pieza mordoxka ikasi ondoren, **karrapen** hasiko ziren **Ebaristo Elduayenen** ondoan jarrita. Hara nola oroitzen den **Tolatxeneko apezak** mutikotako egun haietaz: *"Gero, Ebarixtok jotzen zittun pieza batzuk ikasi giñuzen, ta elkarrekin aitzen giñen arkupen; ez noski oaiñ bezela barrenen; arkupe eskiñetik plazara beide yarrite. Akordatzen naiz beiñ beño geiagotan ingurutxoia yoik ere, Angelek, Bernabek eta nik"*.

Beraz, txistua ikasten hasi eta bi urteren buruko Leitzako ziztulari zaharren pieza guziak buruz ikasita zeuzkan Angelek; baita Ingurutxoia ere; eta laster kanpo herritara joaten hasiko zen, Leitzako txistulari talde gaxtearekin batera. Hamabi urte besterik ez zituela, 1928an, **Bergaran** izandu zen euskal pesta batzutan. Hara nola azaltzen digun Joxemari Azpirozek: *"Oroitzen naiz gañea ze pasatu zetziun Bergaran. Gu, txistularik, kalez kale gengiltzan. biribilketa bat yo, bestea yo; ta, neonek esan nion olaxe Angeli: - Leitzeko pasakalle oitako bat yo bear diu Angel?"*

- Goazen ba, yotzea!

PLAZAOLA

Asi giñen: *laran larari larare, larin lari lire... Ta, etortzen zaiu laxterka dxantzari ttikin buru itten zuna, Ireneo erreteriarra, eta!*

-Ixil zaitetze mutikoak! Ez olakorik jo! - esan zigun gizonak, estu eta larri.


Gu, ustez Leitzeko pasakallea yotzen asil beño, Oriamendi izaki! karlisten martxa! ta guk ez yakinkio! ”.

Garai hartan, euskal folkloreaken pizkundera puri purian zegoenean, herri askotan ibiliko zen Angel, artean mutikoxkorra, leitzako dantzari txikikin. Areson, Arruizen, Ibarren, Barabarren, Ezkurren, Eratsunen. Beste behin Iruñera ere joan ziren, **Leon Navarro** pilotariari **Euskal Jai**en egin zitzaion omenaldira. Baita Andoinera ere, 1929an, Manuel Laramendiri egin zitzaion omenaldian. Haratx nola azaltzen duen orduan Angelekin txistua jotzen ibili zen **Bernabek**: *“Ni gogoratzen naiz emendik saill aundie yoan giñela Andoiñea; oso paper ona iñ giñun leitzarrak. Angel, Joxemari ta ni txistukin eta Klaudio tanborrakin; dantzari txikik; irrintzilarik; kantarik; ta ola, saill aundie giñen”*.

dantzaris; era coreografo y puso letras a muchas canciones, que hoy día son popularísimas. Por ejemplo, la música de: **‘uno de enero, dos de febrero,....,seite de julio San Fermin’**, se ha hecho tan popular gracias a la letra que le puso mi padre; también puso letra a muchas de las Dianas que actualmente se tocan en San Fermín. Pero como le decía, a Angel le tenía por txistulari oficial. Siempre que tuviera un compromiso serio, contaba con Angel. El decía que era un txistulari excelente; el mejor que había conocido. Le llevo con los dantzaris de Muthiko Alaiak a muchas regiones de España y a Francia, infinidad de veces. Porque su sueño era, ensalzar y divulgar el folclore navarro por los distintos países”.

Iruñeko **Condes de Guendulain** etxeko ezkontza batean ere izandu zen txistua jotzen Angel; oso ezkontza ikusgarria egin omen zen, karroza elegantekin eta, dena lehengo estilo zaharrera; Inazio Baleztena, Condearen oso laguna zena, enkargatu omen zen koreografia lan guziaz; eta jakina, Angel ezin faltatu txistuarekin. **Gil**

Robles Iruñera etorri zen egunean ere, Angel Alduntzinek jo zuen ziztua **Iruñeko Katedralean**. Beste egunen batean, **Madriden** ere jo omen zuen **Erregeren aurrean**. Baita **Don Javier de Borbon Parma**, karlisten burua, Leitzara, Baleztenatarren etxera etorri zenean ere, Angel Alduntzinek jo zuen ziztua. Gerra aurreko eta ondoko urte batzutan, holakoak asko zituen, gradu haundiko jendea ziztua jotako aldiak, alegia.



1930.eko San Fermin Txikitan, Iruñeko zezenplazan. Angel, 14 urte zituela, Bernabe eta Klaudio Tolatxenekoaren erdian. (Foto Tolatxenea)

Inazio Baleztenak bere esku ibili zuenekoak:

Gero, Errepublika ondoren, ezpatadantzarik sortuko zituzten nazionalistek, eta Angelek, etxeko politika giroa zela medio, gurasoak karlistak baitzituen, etzion segituko bide horri. Herriko beste zera guzietan joko zuen ziztua, baina, ezpatadantzarik ez. Politika kontu hori zela medio, **Inazio Baleztenaren** bidez leku askotara joanen zen. Artean mutikozkorra izanik, norabait eraman behar izaten zutenean, bizpauru egun aurretik **Baleztenaren etxera** eraman eta karlisten himnoak erakusten aritzen omen zitzaizkion. Iruñeko **“Muthiko Alaiak”** sortu zenean ere, Angel izandu zen lehenbiziko txistularia. Hona Inazioren alaba **Silvita Baleztenak** emadako datu batzuk:

“Mi padre le tenía a Angel de txistulari oficial. Mi padre era un amante del folclore navarro; pero conocía también el folclore de toda España, e incluso de Europa. Fue fundador del Muthiko Alaiak; organizó un grupo de

Angelen eta tolatxenatarren arteko tenka:

Nik neronek sumatu izandu dut, Angelen eta Tolatxenatarren arteko tiradura gisako bat, alde batekoekin eta bestekoekin hitzegiterakoan. Honen zainetako bat Tolatxeneko sukaldean argitu zidan behin **Kandidok** :

*“Gerrakoan Bilbao ta, Donosti ta, artzen zittuenen, txistukin Angel eta atabalakin gure Fermiñ ibiltze ittuen. Baakik, gerrakoan manifestazioak itte ittuen ba Leitzen, ta ordun emen atabalerok ez baitzen, batzuk gerran, bestek illek, eta denak ola baitzien, ta Fermiñek yotzen zien atabala. Fermiñen bille Angel Alduntziñen atte zena, **Joxe Alduntziñ**, etortze uen onea, gure amangana.*

“Angel zena gerrara yoana uen, beño, Baleztenatarrok ikararri matte zikean Angel, ta, nai zuen guzin ekarratzen zikean, ola edozein gauzatak txistue yo nai zuenen; ordun ez baitzen beste txistularik izaten emen. Biñipiñ, Donosti artu zuenen, Angelen atte, Joxe

ori, gure etxera, Tolatxenera, etorri omen uen manifestazioa itteko Fermiñen bille, ta gure amak etzela aterako esan, aren semeik etzela manifestaziora aterako atabala yotzea, ta atea bear bazune, **zapela beltzakin** yonanen zela gañea! **zapela gorrik** etzula yantziko!

"Ori, garai atan emakume batek esateko, ederra uen gero e! Baño, Angelen attek ametittu in tzeioan, ortan gizon portatu uen. Ta ala, beste guzik zapela gorrikin ta gure Fermiñ zapela beltzakin ibilli omen ittuen erri gizittik barrena manifestazioan. Beste batene, Franko Iruñera etorri zen eun baten, Leitzetik ayuntamiento guzie yoa uen errezebimentue ittea, ta ordune Angel zapela gorrikin ta gue Fermiñ zapela beltzakin yonak ittuen.

"Gerra asi arte denak ongi moldatzen giñuzen; aurretik baittuen batzokie ta zirkulue, beño, denak aixkide izaten giñuzen. Geo ordea, gerra etorri uen da, ordun erdibittu uen yendea, ordun erdibittu uen erri guzie. Gakiñe, gu nazionalixtek giñuzen, ta Angel uen berriz, dena Baleztenatarra. Ordun Angelek artu zien, atabala yotzen eakusteko **Xerapio Aundie** esaten zeioan baten semea, Miel, gero Ameriketara yoa zena. In zaaan zetien bi eo iru illabete **Miel** orreri atabala erakusten, beño, etzeioan erakutsi. Gure ama ortaz enteratue eokio! , ta, arekin deus atera etzunen gure etxera atabala yoko al giñun esatea etorri zenen, ordun esan gure amak: yotzekotane zapela beltzakin yoko zula aren semek, Fermiñek. Ortaxetik sortue izateek gure arteko zera guzie .

"Beste beñ, gerrondore artan Obispoa etorri uen onea, ta arkue egiñ zetzioan errin sarreran, **Zapateneko** ortan. Ordun alkate, **Bittorio Lazkano** zegoan, ta Angeleri esan omen zeioan txistue yotzeko, beño etzekit zeatik: etzula yoko esan omen zeioan; ala, Fermiñek txistue ta nik atabala yo giñien. Ango lanak inde, **Peustenea** yoa gattok, eta an baakik, maie bete yende izate uen beti, ta goan zeuket: Angel antxe zegoan maiburun, ta gu sartute seittun esan zeioan Fermiñeri:

- **Ola txistulari del clero!**

Ta gure Fermiñek bueltan:

- **Ola txistulari de Baleztena!**

Ta ixil ixilik geldittu uen. Baño, asarretu ta deus eñ gabe e!

"Gerra bukatute belaxe, beste ezpatadantzari talde bat asi uen, baño ordune Angelek etzien ezpatadantzaik yo nai izaten. Gero asi uen Eskubitar okin. Baño, alare elkarren artan beti izandu giñien alako zera bat. Ori etzeok ukatzeik, ala zen gauze dok eta ."

Ohar bat egin nahi nuke hemen, ni ere norbaiten testigu izana bait naiz, eta ez baitu inongo lotsik nere uste koxkorrek botatzeko. Kandidok esandakoari hauxe erantsiko nioke: politikariek tartean izan ez balitz ere, ez dut uste elkarrekin ongi eramanen zutenik. Bakoitzari berea eman behar zaio: denak badakigu Angel nolakoa zen, eta nolakoak diren Fermin eta Kandido. Binaka uztarrian jarri eta tengoan jartzen den idi pareta aterako litzaiguke beti. Beste gauza: **Klaudio Tolatxenekoakin** oso ongi moldatzen omen zen Angel; bere ahotik behin baino gehiagotan aditua. Bestalde, denak igoalak bagina, oso aspergarria genuke mundu hau.

Gerrako gertakari latza, eta Angelen erabaki zorrotza:

Gerrakoan reketen alderdian ibili zen Angel zena. Gerra nahiko ongi pasa zuen, batez ere, Inazio Baleztenari esker. Lehen esan dugun bezela, Inaziokin tratu handia baitzuen ordurako, eta haren bidez lortzen zituen etxerako permisoak: txistua jotzeko eta edozertarako. Baina, gerrako gertakari batek bihotza iraulta utzi zuen gizona, bere bizi guzirako. Handik aurrera etzuen aditu nahi izaten gerra konturik. **Javier Mari Eskubik** kontatzen digu: "Frenten zebiltzela, gauze mendi puntetik erreka zoko batera yesten omen ittuen, eta, Angel alde batetik eta **Alejandro Lizaso** bestetik, txistue yotzen aittu omen ittuen gau baten. Urrango gauen berrize, asi dittok, eta Angelek esan omen zeioan: 'i, Alejandro, yozak atzoko ure berrize, ez nien ongi ikasite'. Asi omen dok Alejandro ori txistue yotzen, ta bestaldetik reketek danba! ta seko gizona. Pentsazak! sekuleko pena zien Angelek! Ure etzetzioan sekulan azten! Orduntxe esan omen zien, sekulan etzula geio fusillik eskun artuko, ta ez omen zien arture! Gu ola eize kontutan da asten giñenen, beti gauze bera esaten zien: ark etzula sekulan eskopetaik eskun artuko! Alejandro Lizasokin pasatuteko ure etortzen zetzioan burure beti. **Alejandro Lizaso** uen, emen izandu den txistularik obena; errenteriarra uen. Pentsazak ze pena artu izanen zun Angelek ure, bere kulpaz bezela edo, ill zutelako! Ure etzetzioan bere bizi guzin aztu".

Gerrako denbora guzian ziztua berekin zuela ibili zen Angel. Behin, kontrarioak eskubonba bota eta Angel zegoan kanpamentua sutan zegoala, barrenera sartu, eta bere guzizko ziztua eskuratu zuelako pozez karlisten himnoa joaz itzuli omen zen bere lagunengana. Hark edozein gauza, ziztua ez gaitzeagatik! Gerra latzaren erdian ere, hura bere ziztua salbatzera aurrena! gero gerokoak. Politika guziak baino barrenago baitzeraman zizturako grina.


Berriro **Javier Mari Eskubik** hartzen du hitza: "Gerrakoan rekete izandu uen, beño gero kanbietu uen arraso. Oartu uen politikak saltsa ta pikea besteik etzula, ta berak txistue yo, ta andik aurrekoa or konpon esaten asi uen. Nerekin ta anaie **Joxe Marikin** konfiantza aundie zien, anaiek Frantzire aldein aurre artan eta... Ordun kontu asko, beño intimoak e!, kontatzen giñizkioan guk elkarrei. Nek izandu nien bolada bat, launbetetan Leitzera etorri, ta zuzenen Angelen tallerrera yoaten nittuena. Zenbat kontu esan zezkien ark neri: gerrakoak eta bere politika kontuk eta,... Beño ola, kontatu ezin dien kontuk. Ori bai garbi esaten zien: ark etzula geio deus yakin nai politika kontuik. Zena zela: txistue yo ta andik aurrekoa or konpon!". Halare, **Joxemari Eskubi** Frantzitik itzuli zenean ongi etorria ematera ez omen zen Angelik azaldü, ezta Josemariren garai bateko lagun zahar asko ere. Han omen ziren ordea, Leitzako txistulari sail gaztea eta Fermiñ Azpiroz atabalarekin. Berak esana.

Leitzan bertan urte askoz egin zuen txistu lana:

Leitzan bere garaitsuan hasitako txistulari franko izandu bazen ere, Angelek bakarrik irabaziko zuen **Leitzako Txistulari** titulua, bai herrian eta bai ingurumari guzian ere. **Pastain Zaharrari** txanda **Angel Alduntzinek** hartuko zion. Hala, Leitzako txistulari kasta **Pastaingo bordatik Pastaingo herrira** pasako zen. Geroztik, 52 urte segidan

joko zuen ziztua **Leitzako Udaletxeko Karrapean** igande ilunabarrero, bi orduz, zazpitatik bederatzitara. Hiru urtean bakarrik huts egin zuen: aita zena Jose hil zenean, eta gerrako bitan. Atabalakin tolatxenetarrak laguntzen zioten: aurrena Klaudiok; Kandidok noiz behinka; baina Ferminek urte askoan, hil zen arte. Gerora **Jose Arribillaga** albienteak ere urte askoan lagundu zion zuztuki; azken aldera **Javier Mari Eskubik** eta **Jose Luis Huartek** ere bai, tarteka.

Arkupean egin zuen lanaren lekuko hantxe dago harrizko plaka, nahi duenak ikusi, berak ziztua jotzen zuen txokoa jarria. Honelaxe dio: "**Leitzako Herriak/Angel Alduntzin /Txistulariari / 1981-x-4**". Plaka hau agertzekoan, **Donostiko Banda** batek jo zuen kontzertoa **Angelen Omenaldi** egunean. Beste plaka bat **Aurrera Kirol Elkarteak** eskaini zion, eta **Txoko Tabernak** ere bai, beste bat.



Angel Alduntzin aurrena, Joxe urrena, eta Kandido atzetik, 1957.eko Santiburtziotan. (Foto Cecilia Peritz)

Baina, arkupeko lanaz aparte, herriko afaritan, pestakizunetan, elizkizunetan, prozesiotan, ezpatadantza eta ingurutxo dantzatzen zenetan, eta txistuak jo behar izaten zen guzi guzitan han izanen zen Angel. Pestaurretik dantzariekin egiten ziren entsaiotan ere bai, bere orduan zuzen aski. Lan horren oroimenez hantxe dauka etxean Leitzako dantzariak hil ondoan egin zioten plaka. Honela dio: "**Leitzako dantzariak /Angel Alduntzini/Bere oroimenez/ Leitza 1985eko Abuztuak 13**".

Goizeko dianatik hasi eta arratsaldeko Ingurutxora arte, pestatako txistu jotze ofizial guziak ere Angelek egiten zituen. Halare, bere eginkizun ofizialetaz aparte, tabernaz taberna sortuko zituen juerga girorik haundienak. Zenbat jende dantzatu eta gozatu ote da Angelen ziztuaren konpasean? Kontatzen hastera, ez genuke lumerorik aski izanen! Halare, gezurra dirudi: San Tiburtzio egunean **Angel Alduntzinen** omenetan leitzar estiloan antolatuta zen **Jota eta Porrusaldia leihaketa**, jendeak erantzuten ezta, bertan behera gelditu zen. Gaurregun, **Angel Alduntzin** eta **Luis Erbiti** zenaren omenetan egiten den betelana, kanpotik ekarritako trikitixak eta dantzariak egiten dute. Eskerrak begira ez dauden, bian ala biak erel!

Artazuritzeko garaian ere, etxe eta baserri askotan ailegatua zen txistu jotzen. Behin, ilunabar batez

koadrila osoa **Ayenenen** zeudela, Minttorlara joatea erabaki omen zuten. Han zen tartean **Batixte Joamarina** ere, eta orduko berri berak kontatuko digu hobekina: "**Gure anaie Joxe Angel ta, Zaki ta, mutill saille aundie giñen. Angelek ziztue artu zun, abittu giñen beittik gora, ta Iratixabalko ortan, alto! goardazibilek. Gu, alako koadrille ekusitte, arrittute ak. A donde van ustedes? Ta Angelek esplikatu zioan: a pelar maiz a un caserío, a Minttorla. Ola pixkoaten izketan eondu giñen, ta martxa berrize. Zakik anixetu botille bat bazun Ayenetik artue, ta biden artatik eanez yoan giñen. Minttorlako gaiñea allatu ga, ta Ingurutxo yoaz sartu bear giñula! Yarri giñen denak soka, ta ingurutxo yoaz sartu giñen Minttorlan. An sekuleko juerga bota giñun, ta gero Kaxetara. Ane berriz, gaztañ erreke yanetz ta, sekuleko juerga armatu giñun. Argi ezkilletak errire etortzeko asmoan yoan giñen, beño, argi ezkilllek yotare oaiñik an giñen**".

Pesta Ttikitan, ihauteritan ere ume umetatik hasi zen Angel. Ihauteri egunean: goizean diana jo, eta herriko betebeharrak egiten zituen; bigarrenetan eta hirugarrenean berriz, baserriak puska biltzeak. Lehenbiziko urtean, mutikoxkorra zela, eskera atera ziren mutilek bizkarrean erabili omen zuten. Geroztik, hil zen arte, **Erreka** eta **Erasoteko** musika Angelen ziztua eta atabala izanen zen ihauteritan. Azkeneko urtetan,

Tomasin Erbitik lagundu izandu zion akordeonakin; **Mitxelaundik** ere bai batzutan; eta **Eskubik** eta **Kazok** ziztuki; baina, Angel izanen zen beti nagusi. Ziztua jotzeaz gain, zenbat ateraldi eta zelebrekeri botea ote zen hura, baserri baserri? Biblia baino luzeagoko liburua beharko genuke haren kontuak jasotzeko. Pesta giroan, Leitzak gizon nabarmenik izan badu, Angel gailentzen da horretan, beste guzien gainetik. Hemengo letra txarrok ez dira deus. Galdetu hura ezagutzeko grazia izandu zuen edozeini.

Angel
Leitzako
iñotetan,
Aspain
bordako
belatsoan
pixa egitera
lekutua.
Eztira
ikusten,
baña
atzetik ditu
tentatzaillera
k. (Foto
Carlos
Aguirre)



Iñaotetako pasadizo xebreren bat edo beste:

Luxiano Astibia Txartikonekoak kontatue: *"Erasotera eskera zazpi laun yoan giñuzen beiñ Angel Alduntziñekin, ta, etxe guzitan ziztue yotzen zien dantzan ibiltzeko, neskak eta ateatzen ittuen, beño, zazpitatik bat bakarrik ez giñuzen dantzan giñikiñik, eta Angel beak ziztue yo, ta bea dantzan ibiltze uen".*

Karlos Agirre Gaztalunak esandakoa: *"Kriston abildadea zun Ezpolek, pitoa atea, ta pixe ittekoan kriston bidetan botatzekoa. Ola ai dela, eun beten Angel ez do ba busti pixekin! Seitzeio atzetik Angelek, beño eziñ arrapatu! Tiatzeio ziztue, ta burun gañetik pastu zetzion. Ure eskapada! Gero bai arrapature atzetik! Botatzen do azpire, ure ultzie bik! Ure eskandaloa armatu zuen!"*

Jesus Bildarraz Peustenekoari hartutekoa: *"Beiñ, Pello Gaztelunak, etxeko ollaor zakurren zintzerrie artu zien, ta, Erasotera giñiztela lepotik bera zintzillik yarri zeioan Angeleri. Arrekin ibiltzen bazen mille pezta emanen zizkiola, ta, mille peztakoa yarri zeioan zintzurrin sartute, mie estutzen zula. Erasoteko buelta guzie alaxe in tzien. Gu bide guzin adarra yotzen, ta baserritan ze esanik ez! Ure Katxondeoa pastu giñun! Begitan zeuket oañik Aurreran nola sartu zen bere zintzerrie lepotik zintzillik zula".*

Tiburtzio Azpiroz Monteroan esandakoak:

"Beste urte baten izandu zien kanta bat, etzakit nondik atera zun, beño karnabal guzik ure yoaz pastu zetien. Mundu guzik ikasi zien azkeneako kanta ure. Pentsazak, guke ikasi giñien ta:

*Fidel, Fidel, qué tiene Fidel,
que los americanos no pueden con él?
Dicen los americanos que Fidel es comunista ?
Si Fidel es comunista que me metan en la lista ! (bis)
Fidel, Fidel, qué tiene Fidel,
que los americanos no pueden con él?
Para matar a Fidel hace falta dos cañones:
uno para sus ideas, otro para sus cojones ! (bis)*

Urte artan, karnabal guzik ori kantatuz pastu genetien. Angelek txistukin yo, ta guk kantatu!

Inguru herritako pestatara bakarka hasi zenekoa:

Herrian bertan, gizaldi osoak dantzan erabili zituena izandu bazen, inguruko herrietan zer esanik ez. Bakarka txistua jotzen **Gorritiko pestatan** izandu zen aurreneko aldiz aita zenarekin joanda, Errepublika aurretik; uitziar bat omen zuen atabalari. Kanpora hasi zintzen hasi, geroztik inguru guziko herriak bere mende izanen zituen. Herri askotan ailegatua zen ziztua jotzen: **Etxalekun, Igoan, Oskozen, Orokitan, Barabarren, Arruitzen, Mugiron, Aldatzen, Oderitzen, Lekunberrin, Albiasun, Uitzin, Berastegin, Berrobin, Ibarra** eta beste askotan.

Angelek izandu zuen besta fama, jota luzeak jotzeko abildadearena da; galdetu bestela, hura ibili zen herritako dantzari kaskagorrei. Halare, denetan luzena **Ibarra** **plazan** jo omen zuen behin mutikokorra zela. Hara Leitzako dantzarikin joanda **"napar kaxkarra"** deitu omen zion hango neskak bategi, eta hurrena dantzan hasi zenean, han ikusi behar zein zen kaxkarrena! **Bi ordu ta laurdenez isildu gabe** aritu omen zen txistua jotzen; jende guzia harrituta; azkenean, isilduko etzen etsiak hartuta, hango alkateak isilazi omen zuen.

Lehen esan bezela, tarteka izandutako herriak asko izanarren, pestatan urtero ziztua jotzera joaten zeneko herriak ere bazituen mordoska gaitza: **Areson San Pedro** **tan** urte askoan ailegatua zen Fermin Azpirozekin; azkeneko hamar bat urtetan **Tomasin Erbiti** ere han izaten zuten akordeonakin. **Ezkurren Ama Birjinetan** beste hamar urtez, 1968 arte. Eta hola, beste herri asko. Ikus ditzagun maizenik izandutako herri batzuk:

Eratsungo pestetara, galtza motxetan hasi zen:

Aurreneko aldiz 1930. urtean izandu zen Angel Alduntzin txistua jotzen Eratsunen. Hara nola gogoratzen duen egun hura **Joxemari Azpiroz, Tolatxeneko apaizak**: *"Ordun aurrek giñien gu oaindik. Goan dauket beiñ Eratsungo pestetara nola yoan giñien. Angel, Bernabe ta ni giñien txistukin, eta gure Klaudio tanbor*



Leitzeko dantzari taldea Korreneko atarian 1954ean. Ezkerretik: Joxe albientea eta Angel. Erdian Luis Erbiti. Eskuiñean, atabalakin, Klaudio Tolatxenekoa. Beste guzien izenak zuen kontu. (Foto Cecilia Peritz)

yotzalle. Mai bet yarri ziguen, olako mai kozkor bat, eta aren gañien aittu giñen txistue yotzen. Gero txokolatea ekarri ziguen boladukin; txokolatea eta baso aundi bet ur. Oaiñ ezta ekusten boladuk, beño ordun **boladue** ematen ziguen bai, Eatsunen”.

Hurrengo urtean, 1931ean, joanen ziren Angel Alduntzin ziztulari eta Klaudio Azpiroz atabalari, biak bakar bakarrik, galtza motxetan. Geroztik 1968 urtera arte, Angel izanen zen Eratsungo pestatako ziztulari, bi urtetan ezik; gerrondoan, 40 eta 41an, ziztulari **Narbarteko Beltza** esaten ziotena eta atabalari **Fermiñ Azpiroz** joan baitziren.

Aurrena **Arregin** izaten zuten ostatua, itxi zen arte. Gero **Gallegoan** urteren bat edo beste, eta azkeneko urtetan **Leartean**, **Eskuderoan**. Bertako nagusiak, **Joakin Eskudero Leonetek** gogoan dauka oraindik, goiz batez bost laun Angelen ohean nola harrapatu zituen, zeharka jarrita oinak lurrera zituztela, beren arropa eta guzi, denak zorronka batera. Orduko pesta giroa nola izaten zen berriz, **Jesus Deskarga Yoaneberrikoak** gogorazten digu:

“Bezpera illuntzeko etortzen zien txistularia ta tanborreroa. Aurrena afaldu, gero afalondon, erriri buelta eman. Kalejira egiñ, ta atzera **Arregin** biltzen giñen. An, geren elkarren arteko broma pasatu: dantzaldi errak bai! atorra bustikin yoten giñen itxera.

Urrengo goizen, pesteun goizen: diana zortzitan. Ordu estimazio aundia zion emengo yendek Angeleri; edoziñ itxetan atetzen zioten bandejan: kafea, anixa, galletak. **Frantziskenen** berriz, oso launa izaten zun **Jerolimo Elizalde**, ta ara alleatu orduko, asten zen: “**Jerolimo entzun zazu / nexasarekin ibiltzen zera zu / ama datorrenian nian / aita datorrenian nian / etxetik kanpora bialduko zaitu**”. Eta etxeoandrea an atetzen zen parrez, bere bandejakin. Ze bromak pasatzen giñuzen, ordea! Egunero yotzen zun diana, eta irulau lekutan geldittita plegaria ere bai.

Miel Telletxea Apeztegiordakoak hartzen du hitza orain: “Pesteunen mezan ere yotzen zen txistua, gure oroitze guzin. **Agur Jaunak** ez, ordun bakizo... **Himno nazionala** yotzen zen beti sagarakoan. Mezondoan plazan berrize txistua, bazkalarten. Gero, pesta bigarrenetik asita, egurdiko amabik alde ortan etxez etxe ibiltzen zen gazta zarra yanez; egunen irulau itxe itten zien, denak pasatu arte. Pesta irugarrenen berriz, goizen diana yo, ta baserritara puskek biltzera: Batzutan igoal asiko zien **Tolarekobordatik**, ta azken azkeneneko **Domiñeneko Borda**. Denak berdinduxek etortzen giñen errira, ortxe atsaldeko iruk lauak alden. Egun artan etzun bazkaltzen Angelek; afaldu bai, ongi afaldu, ta gero gau guzia juerga, ala artue eukitzen zun bere martxa. Urte baten alleatu zen Angel ori, **Alloko Miel Mutuberriakin**, ordun soldadu zegoan Miel, pesta irugarrenen gau pasa egiñ eta laugarren goizen erri guzitik diana yotzen. Eun duro egiñ zittun apustu **Estankoko Jose Retegikin**: ezetz yo ta baietz yo; ta azkenen erki yo ark diana!”.

Atzera **Jesus Deskargak** hartzen du hitza: “Beñ, Angelek eta orik gabepasa egiñ due, eta goizaldera **Yoaneberriko astoa** arrapatu due nonbatte, ta **Erriko Itxen** goiko ganbarara igo ta leiotik kalera beira patu zuen astoa, burua kanpora zula plazaldera beira. Erri guzie antxe, astoari beira; aik parrak yendek!

“Beste beñ, **Epaltzenekobordan**, lurren etzanda yarrita ekusi izandu dut nik Angel txistue yotzen. Ango alaba, **Pilar**, gure lengusue, soñeko bolantedun batekin yauntzie zen, ola elegante samar, ta dantzan ai zela buelta emattekoan bolantea goratu itten zetzion, ta Angel ori oartu zenen, olakotan izugarrie baitzen: yartzen da lurren etzanda betik gora beira, baño, txistuik ixildu gabe e! segi bere artan, yo ta yo! etzela ixilduko gizonik. Azkenen neska geldittu zen, bearko! Aspo ikaragarrie baitzun: ordu bete baño luzeoko piezak yo izandu zittun ark beñ baño geiotan Eatsungo plazan.”

Miel Ramon Deskarga Apeztegiakoak hartzen du txanda orain: “Urte baten **Gaztelu** zena ekarri zun tanborrakin. Akordatzen naiz bazkalondo baten, pesta irugarrena edo ola izanen zen: atsaldeko seiak alden Angel beti bezela plazara yoan zen; ortan xuxena baitzen ure; ta **Gaztelu** zar ori ez miltzen maietik; tragon batzuk egiñ izan zittun ta, antxe lagun artan, emengo zarrakin izugarri gustora eotten baitzen. Urte artan emen zittuen gañea, **Tomas Erviti** ta **Miel Joakin Sagastibelza** ta oriek ere. Ala beintzat, bestea elduki ezta, Angeleri amorrazi zaio bakarrik plazan, ta ostature yonta abudo eramanazi zula **Gaztelu** zea! Amaika juerga egiña zen Angel ure Eatsunen, baño orratza bezelaxekoa bere ordutan e!”.

Kandido Tolatxenekoak esandakoak: “Nerekin asarretue **Gaztelu** zena atabalakin eraman zun urten, **Fermiñ** da ni yoan giñuzen Eratsunera **Leitzako** Ingurutxoakin. Guk gure lana egiñ giñien dantzariakin; kalejira batzuk eta egiñ genetien; eta gaben illuntzen etxera etorri giñuzen; beño ongi e: ez giñien deusen zerik izandu Angelekin da oikin: aik beren martxan seittu zikean, ta gu etxera dantzariakin”.

Joan Estanga, Eratsungo “**Sekretario Xarrak**” esanak: “Angel asi aurretik, **Arrarasko Maroko Bordako danboliña** etortzen zen; akordeona ere pixken bat yotzen zun; ta atabalero bere semea ibiltzen zun. Azkeneko urte paren baten berriz, berez eratsundarra baño Zubitan bizi zen **Juan Tomas Telletxea** etortzen zen klarinetekin. Aren ondolik asi zen **Angel Alduntziñ**. Ni ere aitzen nitzen arkin akordeona yotzen pixkoat. Oaindik or da nonbatte, Errepublikari yarri zen egunen Donostin errosia nun akordeona txar bat; txarra ez, akordeona ona zen; orduko lautan ogeita lau duro pagatu nunta, pentsatu!. Gero gerra denbo guzin ere nerekin ibilli nun. Ba, gu askotan aitzen giñen Angel ta biek. Ari artuk banittun nik piezak; ta ark ere bai niri artuk”.

“Beste eun baten pasatu zetzien poliitta Angel orrekin. Nik izandu nun bolada itsututa geldittu nintzena; amar eun pasatu nittun deus ekusten enula; medikutara alabakin yon nitzen aresoarren, ta Leitzera alleatu giñenen, Angel ori gure aldamenen sartu zen autobusen. Beño nik ez ikusten, ta ure sentittue gizona, nik diosalik egiñ ez niolako. Norbattek yolasen egiñ zion bazterretik, ta seittun ezautu nik bozetik:

- Koño Angel, emen ai itzen ire?
- Banegoan ba, ez ote negoan saldatu bear edo?
- Ez dit ikusten ta, nola saldatuko engoan ba?
- Ez dokela ikusten !?
- Ez mote, amar eun ontan deus ikusten eztuala neok.
- Bai, neri ere bisten fallo bixkoat asi zetziek,...

Olaxe yoan giñen autobusen izketan. Beño, aurrenetik sentittue gizona, nik saludoik egiñ eniolako! Nola egiñen nion ba, enun deus ikusten da! ”.

Lehen bezela pesta guzitako ez bazen ere, geroztik Angel askotan eramaten zuten Eratsunera, lagunarteko apariak eta egiten zituztenean. **Joan Inazio Retegiri** omenaldia egin zitzaionean ere, han omen zen Eratsunen ziztua jotzen Angel. Baina, azkenekoz 1979 urtean izandu zen. **Joxemari Pakonak** eraman omen zuen taxisean. Inor ez omen zen herrian, eta **Gallegonean** baxoerdi bana hartu ondoren, Joxemari bera ibili omen zen etxafuegok botatzen, Angelek eta Kandidok diana jotzen zuten bitartean.



Angel eta Kandido, Errazkingo pestatan; 1956 inguruan. (Foto Tolatxenea)

Araiz aldeko herritan; Azpiroz, Errazkin, eta batipat Arriben:

Azpirotzen, Errazkinen, eta horietan asko ibilia bazen ere, Arribe izandu zuen Angelek maizenik joandako herria: **22** urtez segidan. Angel hasi aurretik, gerrondoan, Uitziko bandak jotzen zuen txistua Arriben. **Joakin Sukuntza** eta bere illoba, aurren eta bigarren txistu, **Balda** silbotejole, eta atabaleroa; denak **uitziarrak**. Laukote honek, txuriz jantzita, Amabirjina Arrosarioko egunean Uitziko pestak utzita Arribera joanda diana jo izandu omen zuen bi urtez, 1940 eta 1941ean. Haien hurrena, Angel eta Klaudio leitzarrak, 1942an joanen ziren lenbiziko aldiz Arribera, eta geroztik 22 urte errekoan eginen zituen Angelek, 1964 arte. Hona nola gogorazten digun **Arribeko Kondetxeko Martin Lopetegik**:

“Uitziko Sukuntza orrek, esan zigun bera Ameriketara zijoala, eta etzuela etortzerik izango urrango urtean, baiña, nai bagiñun Leitza bazegoala txistulari ona; bera baiño askoz ohea; eta joateko arengana. Arek esanda joan ziren Leitza, eta artaxetik asi zen Arribera etortzen Angel Alduntzin.

Asieran Klaudio izaten zun atabalero; zazpi bat urtean edo ola. Baiña, osasunez etzen ongi ibiltzen Klaudio: beti bizkarreko miñekin da, kejo izaten zen. Gero, Klaudio gizajoa ill ondoren, urte batzutan Kandido etorri zen; baiña Angel eta biek zerbaitte izandu zuten elkarrekin, disputan bat, eta aserretu egin zien. Ondore artan, Angel etorri izandu zen onera bizikletan, Bernardo

Gorostiagangana, atabala eske, an Leitza besten bati atabala erakusteko asmoan edo; eztaikit zer egin zun. Gero beintzat, bolada batean Fermiñ etortzen zen Angelekin.

Beñ utsegin zuen Angelek, ezin zuela etorri eta. Urte artan Klaudio atabalakin eta Fermiñ txistukin etorri zien. Samiel egunean elizakoak eginda Bernardonean bazkaltzen geundela, an non azaltzen den Angel, iñork espero etzun garaian. Angel emen dela, Angel emen dela! Bizkarrean artuta an ibili zuen denak. Ura ango pesta! Ezin etsi onera etorri gabe, eta oiñez etorri zen gizona, mendiz mendi”.

Hogeina pezta kobratzen zuten orduan eguneko, Angelek eta Klaudio atabaleroak. Mendiz mendi joanen ziren Arribera. Atsaldekoa Gorritin egin, eta iluntzerako, **Aizetxulon** behiti han sartuko ziren Arribera. Askotan txistua joaz egiten omen zuten herrian sarrera. Lehenbiziko urtean, herrian sartzekoan **Txuxeneko Ramonekin**, artean mutikozkorra zenarekin, egin omen zuten topo. Aurreneko egun hartan harriturik gelditu bazen ere mutikoa, geroztik hamaika parranda eginen zuen Angelen ziztuaren konpasean. Honatx nola azaltzen digun orduko giroa **Angel Amondarain, Arribeko**

Benardoneko nagusiak: *“Gure etxean, Benardonean, izaten zuten ostatua. Etxean bezelaxe ibiltzen zien. Gure amari, Maria Kruz Gorotiagari “ama” esaten zion Angelek. Ura ambientea! Pestako ilusioa, orain baiño ohea bai! Jeneralean iru egun izaten ziren pesta. Bezpera iluntzean, alilegatzen zirenean, seittun erri goienetik barreneraino pasakallea jotzen zuten. Aurrena Alkatearen etxera eta gero Apezetxera joaten zen txistukin erriko lagunartea. Bezperan plazara etzen ateratzen gauean. Apaldu eta gure etxean bertan, Benardonen, egiten zen pesta. Biamonean, Samiel egunean, egunsentian diana. Ordun elizan etzen jotzen txisturik. Mezondoan bai, plazan, balkalartean. Bazkal ondoren, lauak aldera, berrize txistua plazan. Gero, apaldu eta, goizaldeko ordu biak alde arte. Bere ordutan xuxen joaten zen Angel plazara. Askotan, Benardonean, lagunartean gustara egoten giñen, baina, denak utzita bakar bakarrik joaten zen plazara. Ortan xuxena zen.*

“Gero, Samiel bigarrean, puskabiltzea egiten zen, erriaren erdia; eta pesta irugarrenean, beste erdia. Artan moldatzen giñen denak. Azkenerako berotuxek ibiltzen giñen geienak. Urte askoan Lizartzako Itsua eta Angel izaten zien plazan, eta ni eginda nago aiekin ordu terdiko dantzaldia. Asi gera gu dantzan, eta Angel eta oriek etzutela bukatuko piezik! Guri adarra jotzen aiek! . Bai! redio, aldi batean iraun bearko duzeuek zuek ere, orratik! Ala: segi aiek eta segi guk ere! Azkenen guk gelditu bear izandu gendun. Gogoan dauket: ixildu gabe joan zen orduan Angel afaltzera, plazatik gure etxeraño”.

PLAZAOLA

Angel Amondarain dantzari abila omen zen oso, eta juerga kontuan beti tartean behar izaten zuena. Goizean ganadu janak egitera etxera joan bai, baina, baita abudo bueltatu ere. Urte askoan kasik oherik ikusi gabe pasa omen zituen pestak. **Txuxeneko Ramon** ere ez omen zuen aparte izaten. Honek ez omen zuen juergarik uzten, ezta ganadu lanak egiteko ere. Han edo hemen, lo kuluskaren bat bota, eta segi berriz ere! Sasoi hartan, gazte denboran egindako bihurrikeriak eta zelebrekeriak datozkio gogora Amondaraini:

"Beñ, pesta irugarrena izango zen noski: diana jo dugu, **Erreroan** atariko ontara aillegatu gera, eta gaintzatar bat, asto aundi batekin, dudik gabe perratzer ekarria izango zun. Gaupasa eginda, pentsa, gu nola egongo giñen orduan! Etzigun utzi nai astoa, baiña, azkenean kendu genion nolabaitte, jarri giñuzen gaiñean txistularia alde batera eta atabaleroa bestera, Angel eta Kandido, elkarrri bizkar emanez, eta asto gaiñean txistua eta atabala joaz **Atalloarrara** berrize! Nik eraman nuen astoa eskutik. Ura pesta angoa!

"Beste baten edo bitan, pestak bukatuta, biamonen, Benardonon amaiketako egiñ izandu giñun guk. Angelek eta oik, etxera abittu bear goizean, eta batera gogorik ez Aizetxulotako malda gora abitzeko: Goazen,


beste egun bat gorabera, joanda Benardonon egiñ bear diu amaiketako. Jarri ga amaiketako egiten, eta azkenerako txistu jotzen bukatu zun Angelek. Etzegon ura, pesta guzitan txistua jotzen arittuta nazkatua! Pentsa, nola jarriko giñen gu ordun ere azkenerako. Gero tasisa jartzen zioten, bestela Arriben etzela pestik bukatzen eta!..".

Martin Lopetegi Kondetxeoak hartzen du hitza berriz ere. Bera ere txistularia. Berak etxean egindako txituakin ikasi zuen, nola edo hala. Angel zenari ikasia omen du txistua jotzekoan mingaina nola erabili. Oraindik ere aritzen da franko, herriko dantzari dantzak jotzen eta bat eta beste. Guk ordea, gure hariari dagozkion kontuak besterik ezin jaso honarako: "Emengo batek, **Agustin Irasuegi**, illa da gizajoa, ala esan zian beñ, Angel Alduntzin il zela konbertsazioa aterata: "Nik oraindik atera deten izerdik aundina ura bizkarren ibiltzen atera diat". Urte batean, pesta irugarrena izan bear zun: puska biltzen Angel txistua jotzen bizkarren artuta ibili omen zun etxez etxe. Izanez ere, egun bat izaten zun Angelek "auntze" arrapatu bearrekoa; pesta irugarrena jeneralean. Lanik inportantenak egiñ ondoren, eta kanpokoak joanda erriko jendea bakarrik gelditzen giñenean, orduan arrapatzen zun. Eta guk ura bear! Ze juergak botatzen giñuzen guk arekin! Gogoan dauket: urte askoan gure aittona zenaren, **Perraiako Jose Antonio Lopategiren** blusa batekin ibili zen; maonezko blusa urdin bat zen, dena pliegekin egiña, oso dotorea zen. Onera etorri ezker, Samiel egunerako, blusa ura berekin izaten zun Angelek. Ura jazten zuen, eta pesta guzik arekin pasatzen zittun. Gaiñera, ura jantzi ezker, bere arropak zikintzeko kuidadorik gabe ibiltzen baitzen!

"Emen bazen argentinarr bat, urte askoan an bizittutakoa, **Jose Iturrioz**, gizon lodi bat, eta Angelek, nola bazekin argentinako doiñun itzegiten: bera ere angoa zela esan omen zion beñ, engaiñatu egiñ omen zuen zearo; sekulako gezurrak eta zirrik sartuz; eta bestea dena sinistua. Biãmonean aittatu omen dio auzokoren bati, eta: "Argentino ori moteill? Leitzako txistularia duk eta! ". Arek adarra jo bai, baiña, edukazioa ere bai el Arek edukazioa berekin zun beti. Puska biltzen amar lagun baziren ogei baziren, ura beti ate ondoan geldituko zen, eta denak sartutakoan, bera beti azkena.

"Benardo zenak, karnizeroak, urtero zekorrra iltzen zun, eta zekorrra iltzera ere txistu joaz joaten zen mataderira. Askotan, Benardo zekorrra iltzen eta Angel txistua jotzen. Gero, Samiel irugarrenean, zekorrran pottoak eta muiñak jatzzen ziren. Benardo ori,

Baleztenatarren ezkontza batean: Angel eta Luis Erbiti, ezpatadantzarien erdian. Joxemari Etxebe omen da eskuinetik aurrenekoa. (Foto Silvia Baleztena)



artapuska bezelakoa baitzen, lagunekin beti ongi bear izaten zun oritakoa, eta askotan berak jartzen zuen aragia. Samiel egunean, alkaten etxean bazkaltzen zuten Angelek eta oriek. Gaintentzean, Benardonean. Gero erriafaria ere egiten zen. Benardonekoak bederatzi arreba ziren, eta an pieza bat jotzen bazen dantzatu gabe etzuten utziko, txandaka bazen ere. Amaika broma pasa zun Angelek neskatx aikin! Pixkoat berotzen zenen, zalamero samarra jartzen baitzen!

"Beñ Atalluko karnabaletara ere ekarrazi zuen Angel hori. Gu ere, arribetarrak, mutil saill osoa an giñen. Goizean jo zuen txistua, gero atsalden ere bai, baiña, eztakit zergatik, azkenean armatu zuten sekulakoa: etzela txistulari bearrik eta, zeinek ekarrazi zituen eta,... sekulako eskandaloa beñipeñ. Emengo mutillek bildu giñen, eta: Beno, goazen Arribera! Ala, Benardon etxera etorrita afaldu gendun. Ura pesta jarri gendun! Etzuten kobratu nai iñondik ere! Baiña, atzenean iruna duro eman genizkien. Atalluko mutillak pagatu nai etzutena guk pagatu gendun, eta pozik gaiñera! Oso estimatua izaten baitzen emen Angel. Esaten dizut ba, geiago eziñ ala! Leitzara joaten giñenean ere, ikusten giñuzen beziñ pronto, an etortzen zen guregana, eta etzigun uzten tragorik pagatzen. Berak pagatu bear izaten zun beti. Baita afaltzera gonbiatu ere egiñ izandu giñuzen, beñ baiño geiagotan".

Azpiroztik Errazkinera zuzenean, urte askoz:

Azpirotzera Angel joan zen aurreneko urtea 1945a zen. Urte hartan, sekulako disputak izandu zituzten azpiroztarrak elkarren artean, beste kontuak beste, dantza lotuaren kontua zela medio; eta herritarrak bi sailetan banatuak zeuden. Nolabait esan, gazteak alde batera eta alkatea eta apezta bestera. Orduan Azpirozko alkate **Felipe Eguzkiza** zegoen, eta **Miguel Azpiroz** barabartarra apez, Aralarko Samiel Aingeruarekin herriz herri ibiltzen den apez kankailu horixe bera. Honatx nola gogoratzen duen urte hura **Kandido Tolatxenekoak**:

"Ur artan, bi musikero talde yoan giñuzen **Azpirotzera**; alde batetik, ni ta Angel, ta beste aldetik, gure Fermiñ atabalakin ta **Uitziko Urrutia** txistukin. **Plazaolan** yoan giñuzen gañea, ta Uitziko estazioan sartu uen Urrutia ori, ta andik **Lekunberrire**. Ango estaziora etorri ittuen gure bille kamion batekin, **Bentturatarrak** eta **Ciatarrak** ta orik, gazten buru itten zuen mutillek. Gure Fermiñ de Urrutia etxera bialdu nai zetien berriz, bear zuena patute, beño, aiek etziela yoanen, alkatekin konpromisoa artue zaukeala. Ala ibillite biñipiñ, gu kamionen yoan giñuzen **Azpirozko Bentaño**, ta Fermiñ ta Urrutia berriz oñez. Gero aik allatu ittuen belaxe, ta an denak elkarrekin atsaldoko mokadu bana artute, belaxe abittu giñuzen: gu aurretik, ni ta Angel, ta alkatea atera uen errin sarrerako arkupe artan, ta txistu ematteko esan zeioan Angeleri, ta Angelek ezetz, yotzea galazi nai bazun bale, baño txistuik etziola emanen. Gero biñipiñ, aurrea seittu giñien

Angel Ingurtxoa yotzen Javierren, 1952an. Lau dantzariak ere leitzarrak dira. Ezetz ezagutu zein nor den. (Foto Cecilia Peritz)

txistu yoaz, ta bestek gure atzetik, Fermiñ de Urrutia. Denak txistu yoaz yoan giñuzen goiko ostetureño. Gero, apaltzen asitte armatu zikean sekuleko bronka. Apezta aserretu uen mutillen buru itten zuenakin. Urrengo eunetik aurrea aparte aitzen giñuzen; **Villabona** akordeonista eta gu, Angel ta ni, gaztentzat; eta bestetik, Fermiñ eta Urrutia ta beste akordeonista, **Mateo Txurrero**, zarrentzat. Gero konpondu ittuen elkarren artean, ta andik aurrea denak baten aittu giñuzen. Urte artan aña soñfuyotzalle sekulan ez uen izandu Azpirotzen orduarte".

Urte gogoangarri hartan, 1945ean, hasi eta 1958era arte, 13 urtez joan zen Angel txistua jotzera **Azpirozko pestatara** San Estebanetan, Abuztuaren 3an. Herriko Ostatuan izaten zuten janeko eta lotarako lekua. Hona nola gogoratzen dituen orduko pestak **Miel Zabaleta Errementanekoak**, gaurko andrea garai hartan Azpirotzen andregai zuenak: "Bezperan, joanda seittun, kalejira itten zen, apal aurretik. Gero apalduta, ostatun bertan ta plazan ere jotzen zen txistua. Urrengo goizen, **San Esteban** egunen, diana erri guzitik; diana egunero jotzen zen. Gero mezara; baño, mezan etzen txistuik jotzen; **Miel Azpiroz** ori kontrario amorratue baitzen; eliz atarireño alkateri ta erriko jenderi txistukin lagundu bai, baño, eliz barrenen ez. Pesta biarrenen berriz, eguerdiarten, puska biltzea itten zen etxez etxe. Gero, atsalden plazan naiko musike, ta berriz, apalondoan, ordu bik alde arte. Pesta iruarrenen, goizeko ordu bik aldera bukatzen zien pestak; urte baten edo besten laugarren eguna ere egiñ izandu zuen baño,..."

1948. urtean, Angel Alduntzin pestak bukatzekotan zela Azpirotzen, pesta hirugarren gauen, errazkindar batzuk etorriko zitzaizkion, ea zuzenean **Errazkinera** joateko prest ote zegoen galdezka. Baiezkoa eman zion, eta batere etxera gabe, Azpiroztik zuzenean Errazkinera joan zen pestara, **San Agustín** pezperan, Abuztuaren 5an. Hura ordu hura muga, gerotzik 11 urtez gauza bera eginen zuen: Abuztuaren 3an Azpirotzera, eta handik zuzenean, Abuztuaren 6an Errazkinera. Baina, 1959tik 1963rako urtetan, Azpirotzera gabe, Errazkinera bakarrik joango zen. Beraz, Azpirotzen 13 urte segidan egina zen Angel, eta Errazkinen beste 15 urte. Garai hartan, urte askotan, Abuztuaren 2an txistua jotzen hasi eta Abuztuaren 28a arte gelditu gabe arituko zen Angel: Azpiroztik zuzenen Errazkinera; handik zuzenen Leitzara; eta hemendik segidan Ezkurrera.



Belauntzan 14 urtez segidan: 66etik 80ra:

Angel Alduntzin hasi aurretik Belauntzara joan ziren txistulariak elduaiendarrak ziren, **Simon Nazabal** eta **Gillermo Urkizu**. Geroztik berastiarak ere izandu ziren: **Ospilateko Emilio** eta **Felix** txistulari eta **Xutegiko Luis** tanborrero. Angel, 1966an joanen zen Belauntzara aurreneko aldiz, eta 1981an hil zen arte ez zuen urterik hutsegín. Urte horietan denetan, **Mariano Leizak** akordeona eta **Angel Alduntzinek** ziztua, elkar txandatzuz joko zuten musika Belauntzako pestetan, 14 urtez segidan. Herri hau izandu zuen urtero pestatan joaten zen azkenekoa. Hara nola oroitzen dituen orduko kontuak **Marianok** berak: "San Juan bezperan etorriko zan; lenbiziko urtetan Tolosako autobusen etortze zala uste det; beste batzutan **gatzelutar** oritakon batek ekartze zun; eta azkeneko urtetan berriz, Joan Miel Saizarrekin beakin etortzen zan kotxen. Etorrita, Kontsejun bere trastek utziko zitun, baxoerdin bat artu, eta kalejira jotze zun seittun. Ortako, aurretik etxafuego batzuk bota eta San Juan sua pizten zan plazan. Gero, aparie izate gendun Kontsejun: alkatekin ta erriko gizonekin ta..."

"Apalondoren plazan jotzen gendun. Asiera beti Angelek emate zun, ta gero nik txandatu. Oso ondo moldátzen giñen biok, oso ondo. Ortxe amabi terdik aldera asi eta ordu bi terdik arte edo ola. San Juan egunen, goizeko seiterdik zazpik alden, diana jotze zuen; gero kafe pixkoat edo zeozer artu, ta baserriz baserri joate zian txistu joaz; etxen baten zeozer ateatzen bazioten ura artu, ta segi urrengora; ala, baserri guzik pasa arte; txistularik bakarrik ibiltze zian, etzuten erriko mutilik izaten laguntzeko. Baño, azkeneko urtetan etzan etxez etxe laguntze."

"Baserritak etorri, eta belaxe meza. Mezara San Juanen zortzikoa joaz joate zian alkatekin eta erriko jendekin, eta mezondoan berdiñ, elizatik Kontsejura; elizan etzen jotzen txistuik. Kontsejun amaiketako izate zan Ayuntamentun kontura. Ura egiñ, eta amabik aldera, Angel aste zan txistu jotzen lenbizi, eta gero ni joate nitzaión txanda egitea. Ordu bik alde arte."

"Bazkalondoa kulusken bat gustora ingo zun, baño bazkal ondoreko giro ura etzun galdu nai izaten, eta jeneralean maien gelditzen giñen biok, nik akordeona jo, arek txistua, beste batek kantatu, besteak xelebrekeriak kontatu,... Oso gustora pasatze gendun. Gero bertsolarik ere izate zian: Lazkao Txiki bat eta; ura etrotza zan urtean, ez berak jan eta ez besteri utzi jaten; lertzen giñen parrez."

"Urte baten edo besten **Mattin** bertsolaria ere etorri zan, eta eztaikit nondik nora, **pontxela** itza atera zun; eta itz onek emakume batekin asuntora joatea esan nai omen zula esan zion Angeleri; esan bazion esan zion: arratsalde guzia pontxela gora ta pontxela bera ibili zan emakume guziri adarra jotzen, baño, bestek ez entenditzen."

"Guk egunero egin bear izaten genduna zan: atsaldeko saioa pukatu, trastek utzi, eta afal aurretik beti **Beiko Tabernara** joan; biden aire pixkoat artuz lasai joan, gure kontuk esanez; an baxoerdi bana artu, eta ordun etortzen giñen afaltzera Kontsejura."

"Guk elkarri ikasitako piezak ere bagiñuzen asko. Arek, pieza gustatzen bazitzaion, nik urte baten akordeonakin jotze nuna, urrango urterako txistukin

ikasita ekartze zun. Eta nik ere badet ari ikasitako pieza asko. Ark musikarako belarri ikaragarri ona zun, eta afizioa ere bai; ura etzan aspertzen. Azkeneko egunen kalejira egiten gendun denak elkarrekin, ta **Kontsejun** bukatzen gendun. Bukieran, txokolatea emate zuen an, ta arek askotan oraindik txistu jotzen seitze zun gaztekin txokolatea artuz; beti pestak ezin bukatuz izate zan ura."

Gregorio Lopetegi, Kontsejukoak hartzen du hitza orain:

"Aurreneko urtean, 1966an eguneko sei duro kobratu zituen Angel Alduntzinek, eta uxkeria ura kobratzera Ibarreko Udaletxera joan zanean, ala esan omen zion Marianori sekretarioak: "qué ha tocado la banda de Madrid o que?". Nonbait, txistulariak asko kobratu zutela iduritu zitzaion! Alare Angel, 1966etik 1980era arte, urterik utsegín gabe joan zen Belauntzara, 1981 urtean eriotzak eraman zuan arte. Tanborrakin **Fermiñ Azpiroz** izate zun lenbiziko urtetan, baño, bi urtetan edo, gaizkitu egiñ zala edo eztaikit zer zala, bakarrik utzi zun Angel, eta andik aurrera **Joxemari Etxeberria** ekartze zun tanborrakin. Angel ilda gero berriz, **Joamiel Saizar** txistukin eta **Soro** tanborrakin. Gure etxian Angel etxekua bezelaxe ibiltze zan. Sekulan ez gendun ezeren goraberik izan. Arek esan bear zuna garbi esate zigun, ta guk ere bai ari".

Baina, 1981 urtean, San Juan eguna ailegatu zenean Belauntzako herriak gogoan zeukan hainbeste urtetan Angelek jarritako giroa, eta omenaldi txiki bat egin zion: Meza, Leitzako txistulari taldeak jotako kontzertoa, eta azkenean, **Ramon Lopetegi** orduko alkateak, herri guziaren izenean plaka bat eman zien Angelen familikoek; bere seme Joan Josek jasoko zuen. Nahi duenak ikusi, hantxe dago oraindik plaka Pastainen, Angel zenaren etxean, honako hitz hauekin grabatua: "Angel Alduntzin zenaren oroimen eta esker onez Belauntzako herriak, 24-6-1981".

Dudaruk gabe, bolada haundian, inguruko herri hauean denetan izandu zen ziztularirik famatuena, kasik bakarra, Angel Alduntzin izandu zen; Elizondo aldean **Marizio Elizalde** izandu zen bezelaxe. Baina, gizon eta ziztulari bezela ere, oso tankera desberdinekoak ziren. Maurizio hitz gutxikoa, extua, eta ez hain juerga zalea; Angel berriz, guziz bestelakoa: juergazale amorratua. Zitzu jotzen ere, Mauriziok batipat mutildantzak eta doinu patxadakoak joko zituen. Angel berriz, jota biziak eta nota azkar eta zailtakoak jotzen inor ez bezelakoa zen. Hóna nola oroitzen duen **Joan Jose "Zitok"** behiala aitak kontatua: "Beiñ Maurizio Elizaldekin tokatu omen uen Irurtzenen. Gure atte leitzeko jubilatukin yoana ta Maurizio berriz Elizondoko aldekoakin. An yuntatu dittok, eta Maurizio ori zortzioak gora ta zortzioak bera, ez ixiltzen. Azkenen zortzioak yotzez aspertu dittok eta, gure atte bere jota bixi oikin asi omen uen, ta Mauriziok ez seitzen".

Angelek jotak jotzen etzuen parekorik. Erraxtasun izugarria zuen. Behatzak eta mingaina aise dantzatzen zituen hark, eta notak beti garbi eta gozoro ligatuak, nahiz elkerren segidan tximista bezela pasa. Honetaz hara zer esan didan **Pontxito Irurtiak**: "Angelek txisturi oso soñu gozoa ateazten zeioan; flauta trabeseran antzekoa; nik ez dit inor ikusi aren estiloan txistue jotzen:

pikatu bearren auspoan eragiñez yotzen zien, notak elkarrekin lotuz eta gozatuz; baño orrek bazien eragozpen ttiki bet: notak eziñ ongi pikatu". Dena den, alderdi hau ongi aztertzeko, hark jotzen zituen jotak entzun eta partiturak ikusi beharko genituzke. Don Miguel Sagasetak kasetez hartu eta paperera pasatuak badira asko. Hari esker ikasi genituen guk, Angelen jota asko. Egunen batean falta direnak bildu, eta denak txukun txukun argitaratzeko esperantzarik ere oraindik ez dugu galdu. Ailegatuko ahal da hori eginen den eguna ere.

AGELEN BESTE ITURRIA: UMOREA, ATERALDIAK, ZIRIAK

Angelito bi mingañoeko "zintzarri" fiña ere bazen:

"Angelito" konfiantzaz diot, ala deitzen zioten guziak estimatuko didatelakoan. Bestalde, gauza jakina da Leitzañan, mingaiña dantzatzeko abillak zirelako berenganatua zutela mikonetarrek "zintzarri" izengoitia, eta Angel Alduntziñek, aita eta ama, biak mikonetarrek eta lengusu propioak zituen. Beraz, Angel bi mingañoeko "zintzarria" fiña zen; eta ez gañera ortik onarako mingaiña zituena; oso mingaiñ azkarrak biak ere; kastillanoa eta euskara ere erretasun aundiz erabiltzen baitzituen; ark bezain ongi bi izkuntzak menderatzen zituenik, leitzar gutxi izanen zen garai artan.

Norbaiti gaizki igoal idurituko zaio "zintzarri" kontu au berritzea. Baiña, seguru nago, Angelito bizi balitz ez lukela batere gaizki artuko. Iñork bada eta, Angelek ongi merezia baitzuen izengoiti ohorezko ori; eta egia esan, berak ere ederki onartzen zuen. Iñaotetan amaika adarjotze egiñak daude Angelitori, baserri askotan salako abetik zintziliek egoten ziren "zintzarriak" astinduz, eta nik dakidala sekulan etzuen gaizki artu izandu. Alderantziz, berak aipatzen zuen askotan "zintzarri" kontu ori, ari edo oni parra egiñazteko. Ura beti umoren izaten baitzen, non eta baten batek geixko pasata sutan yartzen etzuen. Alakotan ojo! Alakotan bai azten zitzaizkiola umoreak! Baño, atzera seittun pasatzen zetzion sualdia.

Alare, segun noiz, nork eta nola aipatzen zion "zintzarri kontue", erantzuna ere alakoa jasoko zuen. Yende askok kontatu didan pasadizoa da. Beñiñ, Errege bezperan umeak erri guzitik zintzarrik astinduz zebiltzela, berakin topo eginda ala esan omen zion Angel Zubiturrek: "ixo ixo, zer da soñu ori Angel?". Bai abudo eta ederki erantzun ere, besteak: "Ori zer den? Ori frailekondo guziri porkulo ematteko deie dok". Gaztetan frailetan ibilia baitzen Angel Zubitur. Boteprontoko oitakoak ezin konta ala zituen Angel Alduntzinek.

Angelen esanerarik ezagunenetako batzuk:

Jainkoak bestek ez daki zenbat esanera zituen Angelek, gerora herriaren gogoan gelditu direnak. Denak

biltzeko liburu luze bat beharko genuke baina, hona batzuk, baten eta besteren ahotik jaso ditudanak:

- *Voy a tocar el pito!* (ziztua jotzera zijoanen).
- *Un doble redios!*
(baxoerdia orde, baso ardoa eskatzekoan)
- *Una aspirina proyectil!*
(Hau zuen ardoa eskatzeko beste modue)
- *Una aspirina proyectil / nabadozo bizi ta nabadozo ill!*
(Hau berriz, baso ardoa edatekoan esaten zuen)
- *Vino angelical que te crías en las parras*
Tu me curas tu me sanas/
tu me quitas las malas ganas.
De aquí entrarás; aquí dejarás el fruto
y saldrás de este hermoso canuto!
Jolin que tío más bruto!
(berak ez bazen, bazterrekon batek).
- *Hasta los chupo me deido!*
(Hau berriz tragoan hustutakoan)
- *En el nombre de la bragueta,*
para que el demonio no se meta!
(Esanera hau, berdakeriren ondotik erabiltzen zuen)
- *Cinco porculo veintiuno/ llevo dos bajo uno!*
(Hau zuen beste esaldi xehebretako bat)
- *Qué maricón esta el tiempo!*
(Norbaitek adarra jotzen zionen)
- *Anda de aquí, maricón trastornado!*
(Baten bat trastadaren bat egitera etortzen zitzionean);
Ezpol edo **Soro**, esaterako)
- *Para bien tiradas: Valentín!*
(Inoren zotzari ziria sartzen zionean)
- *Yo soy chato pero de nariz larga!*
(Engainatu nahi izaten zutenean)
- *Intzek artu zetik nik!*
(Goizeko 'ttantak' hartu ondoren)
- .. (Holakoak pileka zituen Angelek)

Angel etxeko giroan nolakoa izaten zen:

Joan Jose "Zito", Angelen semeak berak esandakoak: "Gure atte, ume umetatik txistue yotzen asie izate uen, eta gure etxen, txistue ta Angel eta Angel ta txistue elkarrekin izate ittuen beti. Beti izaten zetien bere fetxak, txistue garbitzeko ta ttunttune prest yartzeko. Txistu guzie desmontatzen zien, lengueta ta dena, beño atzera dena garbittute erki yartzen zien bere gustura montatue. Ttunttunari larru berrie, estutzeko sokak, eta kristo guzik, denak berak yartzen zezkioan. San Juanak beño lentxeo yartzen zetien txistue ta ttunttune puntu puntun. San Juan bezperan Belauntzera yoate uen, Ekaiñen 23n, ta Eratsungo pestak arte, Iraillen 8 arte, beti izaten zien non edo an yo bearra.

"Asi zenetik ill zen arte, txistu berakin ibilli uen beti, azkeneako zuloak gastatute notak ongi atetzeko kriston filigranak itten zetien. Beste txistu zar bat izaten zien **Joxepa Baldak** emana, ezpelezkoa ta latonezko eratzunak zittuna, beño arekin etzien yotzen. Ure Pastain zarran txistue izane uen, emen ebano sartu aurretik ibilli zen txistu klasea uen beintzat. Gero, beste txistu bat bazien, Bilbaon erosie zillar kolorekoa; urere oso gustokoa zien, beño bere zarra naiago izaten zien, alare.

"Beste gauze bat zea izaten zien attek: pestatik edo juergatik etortzen zen aldiero: etxeko eskalleak beti txistuka jotzen zetien: fi fa fu fu fu... ezpañekin txistue yoaz sartuko uen beti etxen; ori betikoa izaten zien; ta etxetik atezatzekoan ere igoal: beti bere burutik txistuke.

"Arrek musike kontue berezkoa zien; solfeo aundik etzien, baño arrek eozin gauze yotzen zien. Beñ, **Periko Lizartzak** flaute ttiki bet ekarri zeioan, ta ure bi eskukin artute jota erki yotzen zien. Beste baten, gure **Mamen** ttikie zela, piano koxkor bat ekusi zien **Pakon** eskaparaten, ta ure bear zula ta ure bear zula. Azkenen, erregetan ekarri giñioan, ta artane esku batekin erki yotzen zien attek jota. Atabala ere ezpezial yotzen zien. Baita kastañuelak eta pandereta ta olakoake".

Honen harian, **Pontxito Iurriak** esandakoa: "Gu ordun Ayuntamiento bizi giñuzen, ta ama ta bik goiko barandatik beire geunden. Tolosako Banda sarreran zegoan, istrumentuk eskalleapen utzite atetik kanpora beire. Alako baten Angel orrek artu zien **Trombón de varas**, yotzen zallenetakoa den bat, eta jota bat yo zien betitik yo izan balu bezelaxe. Ni arrittute utzi nengoan. Akordatzen nak oaindik, nola esan zien amak: 'ez dauke orrek kutsatzeko billur aundik'. Tisiko batek yotzen baitzun Trombon de varas ure".

Atzera **Zitok** hartzen du hitza: "Gero, sokalden zeoala radioan txistue aitzen bazun: ixo ixillik! esa en zien, ta

pieza bukatzen zenen bere koartora yoanda, ure ikasten aitze uen. Arrentzat txistue sagratue uen. Ure txistue yotzea pozik yoate uen, noranai zila ere. Beño, eun beren irulau tokitera yoan bearra tokatzen zetzioanen suten yartzen uen. Igoal goizen errin batera, gero atsalden bodan batera, ta ola irulau tokitera yoateko deie itten zioanen, ordun pasatzen zetien egitazko tripekomiñek. Bere konpromisoik aundina orixe izate uen: denatara yoan nai, ta eziñ allatu. Olakotan sufrittu itten zien. Ta ze poza artzen zun, etxera allatute, arropa zikiñek aldatute, seittun beste lekun batera yoan bear izate zunen!

"Gero etxen, izaten zetien eunek, ola bazkalondoan edo, lasai eotteko garaien, sekuleko juergak yartzen zittunak. Mala letxen yartzen zenen, jenio bizikoa uen; ori etxen, da kanpoan igoal; beño jeneralen umoren ibiltze uen, ta ordun, txistek kontatzen da, xeibrekerik itten da, adarra yotzen asten zenen, sekuleko parrak itten genetien. Beño, pixkoat bera zirikatzen asten baitzen, bueltan aittuko ittuen earra!

"Kanpoan ere ni beti gustoa ibiltzen nittuen atekin. Gu juergan oso ongi moldatzen giñuzen elkarrekin. Beño askotan gure artekoa beño geio inguruko giroa izaten uen, guri adarra yotzen da asten zena. Inñauteritan, baserritan da, baakik, batzutan batek besteri kristonak esanez da ola ibiltzen giñuzen; beño gero, baten bat bin kontra adarra yotzen asten zenen, erki artzen giñien elkar. Bai, atte ortan ez uen asko galduko! Askotan esperoan eotte uen, nork ze esanen zion, burure etortzen zetziona zapa botatzeko!".

"Gero, beste ottera izaten zien: pestetan, San Tiburtziotan, mendire yoatekoa; eun pare bat itten zetien mendin. Goizen diana yoko zien, ta, larramillu beiltzera edo, onto biltzera edo, yoane uen ta, eguerdi aldeako etorriko uen, edo atsalden txistuik yo bearrik ez bazun, igoal eun guzie mendin. Ola eun pare bat egiñ bear izaten zetien. Mendie izuarri gustatzen zetzioan atteri. Asko ibiltze uen. Gaztan biltzene asko ibiltze uen; Masumeneko gaztañedie izaten zien bere esku. Gero, neu parten pesta itten zien, Astigarragako arreban etxetik sardoa ekartzen zien, ta gaztan errekan yanez, baakik, saltsa politte izate uen.

Auzoan bertako giroa: Lanen, Peustenen; Ojalateroanen:

Angel zenak etxetik lau pausora zuen Peustene, eta kasik ilunabarrero han biltzen ziren **Peusteneko "Kongresoan"** herritarrik zelebrenak pinta batzuk ardo edanez; "**Sétimo Cielo**" deitzen



Angel ziztua jotzen, Aurrera K.E.ko atez barrendik. (Foto Carlos Aguirre)

omen zioen, sarreran zazpi eskailera zituelako. Auskalo zenbat kontu eta zelebrekeri bota zuen han Angelek? Beti han izaten zenetako batek, **Joxe Zabaleta Landanak**, Angelen auzo eta lagun haundia izandu zenak, kontatzen digu hango pasadizo bat edo beste:

"45.ko elurte aundi artan sekuleko eunek bota giñuzen. **Aramendia "Zaki"**, **Tomax Erbiti**, **Joxe "Naparra"**, **Mitxelaundi**, **Miel Joakin**, **Gaztelu**, ta... begiñen saill aundie. Lenbizi, beti bezela, musen da aitzin giñen, gero broman asten giñen batek besteri adarra yotzen da, ta azkeneako Ingurutxo ta guzi itten giñuzen dendan barrena. Angelek ordun, Ayuntamentun eukitzen zun txistue; Joxe albientekin an entsaiatzen baitzuen; yoanda albienteri giltzek kenduta ekarri zioan txistue, ta antxe denak dantzan; ure juerga yarri giñun; bakizo nolakoa zen Angel ure; ya gabe guzie an pasatu giñun egun artan.

"Beste baten, **Pesta Ttikitan**, gu genbiltzan, Fermin Erbiti ta ni dantzan, bik bakarrik, ta Angel txistu yotzen. Gu dantzan genbiltzela, alako baten, **Turuta** esaten zioan goardazibill ttiki bet asi zen **Kongresoko Maien** gañena igota dantzan; alakoa zen urere ta. Ure ala ekusi zunen, **Gaztelu** zenak ze egiñ do? gorago igo, ta mostradore gañen asi dantzan. Ta dantzan ai dela, buelta ematekoan, ze in do? aldarro inde leio gañea erori; kristala autsite eskue dena ebaki zun. **Miel Joakiñek** ala esan zion: "Eskerrak kristala yo doken, bestela leiotik kanpora yoate itzen".

"Gero, azkenaldira **Ojalateroanen** biltzen giñen, ta orre sekuleko juergak itten giñuzen. Orrera ere askotan ekartzin zun txistue. Ola, koadrillen bat billu, ta , pixkoat animatzen giñenen: "Hi, ekatzat txistue Angel?" asten zetzizkioan denak, eta, etxera yoanda ekarriko zun txistua, ta, antxe ibiltzen giñen noiz nai, dantzan da, kantari tte; ure bakizo nolakoa zen. Gizajoa! pena aundie artu nun nik ure il zenen! Beti bik elkarrekin izaten giñen. Bakizo, auzoak eta betiko launek. Beti elkarri adarra yotzen, beño beti laun! Beño, gizajoa, il zen da, eztao....!

Angel Alduntzin zurgintzan aritzen zenekoa:

Pastainen bertan, etxearen garaikaldean izaten zuen zurgintegia Joxe zenak, eta aitaren eskutik han ikasiko zuen Angelek ere ume umetatik zurgintzan. Urte askoan **Bixente Usabiaga Lopenekoa** aritu zen aita semeei laguntzen. Gero Estazioan jarri zuen zurgintegia, leku haundigoa zuelako, eta zerra eta dena bertan bazuelako; oiloak eta azinda batzuk ere edukitzen zituzten han. **Joxe Joseaundinak** azaltzen digu hobeki:

"Gero andik **Basumeneko errire** etorri zien, eta zurgintze utzi zun arte Angel or aittu zen. Zurgintze lana utzi zunen, orko zerra fabrikera, Sarriora saldu zun. Gero "**zazpi pisutako**" azpi ortan **Tirapuk** yarri zun "**Sala de juegos**" batene eondu zen bulada baten. Gero, azkeneako, tarteka etxetako lanen batzuk itten, txatar biltzen, ta ola ibiltzen zen; txerri batzuke eukitzen zittun beti etxen; denatan seiatue zen ure, ta fabore bat eskatzen baziñion, bere lanak utzita settun etorriko zen; ortan izugarrie zen; oso biotz onekoa; beti launtzeko prest; amaika aldiz etorrie gure etxera: erremintan bat bear giñula edo, zerbatte konpondu bear giñula edo, guk beti Algeli esaten giñion, ta pozik etortzen zen ure!

Karlos Agirre Gaztelunak esandakoak: "Pestaurren balladue yartzen asten giñenen Angel or izaten giñun beti; zurgintele or izaten baitzun Plazako ondoan. Ure faltatu ezkeo akabo! kuñek ziela, erremintek ziela, eztafik zer ziela, arrek soluzionatzen zittun gorabera guzik. Ta gero, yartzen zun giroa? izugarrie izaten zen! Protagoniste principala ure izaten giñun beti. Beifñ, Gasolinerako ortan barrerak yartzen ai zela, **Bernabek** zera esan zion pasaeran: "Ze aiz or Angel?". Ta, Angelek: "Aio, atracador de los pobres!". Olako ateraldik, milleka zittun arrek".

Joan Pedro txarkuteroa eta biak, auzoan aritzen ziren lanean. Beti lagun, baina sekulakoak esaten omen zizkioten elkarri. Goiz batean hala egin omen zion diosala Joan Pedrok: "Eunon Angel" eta besteak bapatean: "Hola señor, que tal han descansado sus reverendos cojones!". Holaxekoa zen haren iturria, sekulatan agortzen etzen horietakoa.

Auzoko zakurrek oso matte zuten Angel. Toniren istorioak:

Auzoko txakurrek kariñoa hartzen zioten Angeli. Txakur bat bakarra izandu zuen berak propio ekarria, **Joakin Astibia** panaderoak emanda. Ojalateroan atariko hortan kamion batek harrapatuta hilen zitzaion hura. Hara nola kontatzen digun **Txomin Urrutia kantinekoak**: "Loentxito koñadoari sartu omen zetzioan kamionan azpire, Mendizalko ortan. Settun geldittute galdezka asi dok zakurre zeñena zen, ta Angelena zela. Yoan dok zakurre kollaretik artute tallerrera; ta: 'kaixo Angel, ola ta ola pasatu zat, eta zakurrekin eldu naiz'. Ta Angelek seittun: 'Redios, ill indokela ta zakurrekin eldu aiz onera, botazak nai doken tokire i, nik ez dit zakur ill bearrik'. Ta, Loentxitok, aiden artute **Torreko batzara** bota omen zien". **Ttiki** zuen izena zakur hark, eta oso polita omen zen.

Beste bolada batean **Yudi** izeneko zakurra izandu zuen Angelek beti berekin ibiltzen zuena. Izatez **Aldayana** zen zakur hura, baina beti Angelengana jotzen zuen, hark bezain ongi inork tratatzen etzuelako. Halare Angelen zakurrik popularrena **Toni** izandu zen, herri guziak ezagutzen zuen zakur beltz hura. Hura ere auzoko **Larraldetarrena** zen izatez, baina beti Angelengana jotzen zuen, eta azkenean berekin gelditu zen hil arte. Izugarri matte zuen Angelek **Toni** eta ez gutxiago **Tonik Angel**. Beti atzetik izaten zuen: hamaika aldiz ikusiak gaude, Angel motoan edo bizikletan eta Toni atzetik lasterka. Baina, hori ez da deus. Behin, Angel **Tolosara** dentistanagana joan zen batean, autobusari atzetik segitu, eta han presentatu omen zitziñon dentistan atean. Beste behin, Angelen zerrikumek eramaten zituen kamionari segituz, Iruñeko **Pamplonican** presentatu zen Toni. Gero, karrapen ziztua jotzen zuenenetan ere, Angelek beti hantxe izaten zuen Toni, bere hankartean kuxkurtuta jarriarik aurrera begira. Angelek ziztua jotzen zuen boda gehienetan ere han izaten zen **Toni** koruan. Leitzako eliza eta korua ezagutu zuen zakur leitzar erlijioso bakarra zen beraz, Toni. Lo ere Angelen koartoko ate ondoan egiten omen zuen beti. Pestatan plazan zezenetara bere ateralditxoa egin gabe ere etzen geldituko Toni. Ah! eta hori bai, etsai amorratu bat

bazuen: **Furia**. Behin iaia garbitu omen zuen Toni, eta geroztik sekulako gorrotoa izaten zion Angel zenak karteroaren otsozakur hari. Eta zeinek ez? Nik halare, bere gaizto guzian, uste dut etzela jabea bezain erretxina.

Atzenaldira, ia oso zahartua, atakeak ematen zioten Toniri, eta desagertu zenean pena handia hartu omen zuen Angelek. Erasotera motoan joan zen batean, atzetik zetorrela ikusi omen zuen, baina, gero mendian zebilela zakurrik azaltzen ez! Beste aste betean ibili omen zen zakur bila, batera jo eta bestera jo, baina inon arrastorik ez. Handik denboraren burura, Toni nola desagertu zen aipatzean hala esan omen zion lagun batek: *"Tranquilo Angel, tranquilo: el perro que quiere mucho al amo se aleja de él a la hora de morir"*. Zeinek daki? Igoal izandu zen Angelen lagunik finena.

Azken orduko oroitzapen gogoangarriak:

Bere gaitzak, hezurretako minbiziak, ia heriotzera bidean jarri zuenean, **Donostiko Oncologikoan** egondu zen. **Arrate** medikuak tratatu zuen, eta hala esaten omen zion: *"si me sacas vivo de aqui te dedicaré la Jota Arrate"*. Han ere, oinaze bizitan zegoela, ziztua eskatzen omen zuen. Hil aurrexetik, hilabete lehenago ziren Leitzako ihauteriak, eta ordurako besoa iheltsotua zuela zebilen Angel. Ihauteri hirugarrenean, goizeko hamarretan oraindik **Aurreran** geunden **Erasotera eskera** joan behar genuenak. Oso berandu zela eta abitzeko esanez etorri zitzaigun, bestela bera joanen zela. Oroitzen naiz, gaupasa eginda zebilen gazteren batek nola galdetu zion: *"Ze pasa zak besoan Angel?"*. - *Besoan? Abionetik erori nak'*. Oinaze bizitan eta halare etzuen umorerik galtzen hark.


1981eko Otsailaren 18an egin ziren bere heriotz elizkizunak, etxetik elizaraino herriko dantzari eta txistulariz inguratua joan zen, txistu doinuaren konpasean; lur ematekoan berriz, **Agur Jaunak** jo zitzaion kanpo santuan. Baina, kurioa da, dantzariak ikurrina hartu edo ez hartu zalantzan ibili ziren, eta azkenean aztarren politiko guzietatik garbi uztearren, ikurriñarik ez eramatea hobe izanen zela erabaki zuten. Oso ongi erabakia. Halare, kurioa da, Angel haurra zela, ziztua jo besterik egin nahi etzuenean, politikaren kontua sortu zitzaion bazterretik, eta hil zenean igoal berean. Bere gaintetik ezin uxatu zuen euli tentagarri bat bezela izandu zen politika Angelentzako, eta hil zenean ere han segitzen zuen oraindik euliak. Baina, Angel, gauza guzien gaintetik ziztularia izandu zen, zizturako grina berez odolean zeramana. Hitzak sobran dira: bere historiak erakusten du hori. Angel eta ziztua, ziztua eta

Angel Anduntzin, 1981.eko iñotetan, eskuñeko eskua igeltsotukin, eta ezkerrean bastoia duela, Leitzako Obispo Huarte kalean. Andik 20 bat egunera utziko zuen mundu hau. (Foto Pedro Joxe Aizpuru)

Angel, ziren herriak maite zituenak; eta **herriak** diot. Ikusi egin behar zen Leitzako elizan zenbat jende bildu zen, bai herrian bertatik eta bai inguruko herri askotatik, Angel zenari behin betiko agurra ematera! Alperrik orde; behin betiko agurtu ezin den horietakoa baitzen Angel Alduntzin! Gutxina uste dugunean gure artean azaltzen diren horietakoa.

Labur azaldua, holatsuakoa izandu zen gure Angelito haundiaren bizimodua. Bihotz oneko gizona; bere konpromisoetan zorrotza eta zuzena, baina, pestagiroa jartzeko orduan parekorik etzuen. Nortasun bizikoa, bere gaineko norbaiten aginduak betetzea baino bere gisa ibiltzea gehiago gustatzen zitzaiona. Ongi egin ongi pagatzen eta gaizki egin gogoan hartzen ederki ikasia. Hitz batetan esateko: bera beteko gizona.

Ziztulari bezela omendu izan du mundu guziak; baina, nortasunez eta gizatasunez monumentu bat egin beharko litzaioke. Ni seguru nago hemendik urte askara baino lehen izanen direla **Angel Alduntzin kalean** biziko diren leitzarrak. Izanez ere nor aproposagorik? Nork alaitu ditu Leitzako kaleak hark bezalako bizitasunez, umorez, eta iraupenez? Inork ez. Angel Alduntzin bera bezelakoa baitzen: bakarra. Betikorik ez omen da izaten. Gezurra. Leitzan izanen da bat: Angel Alduntzin.



Eskerrak: Hemen aipatu direnez gain, nere eskerrik beroenak Angelen kontuak biltzen lagundu didaten guziei: batipat, bere familiakoei, tolatxenetarrei, Carmen Gaztelunari, Peritzeko ahizpei, Agustín Biguerari, Pakito Zabaleta "Urteñeri", inguruko herrietan haren pasadizoak kontatu dizkidatenei; fotografiak utzi dizkidaten guziei; eta nola ez, baita agindu asko baina batere lagundu ez didaten guziei ere.

ZERRIAK ETA ALDAPAK

Lauzpabost urte izanen da hau gertatu zela. Gure lagun baten attek zerri-borda dauka Gorritzarango zoko batean, eta hartan semea bidali zuen lanera. Zerri-eme bat inguruko baserri batera eraman beharra zegoen hango beste zerri batek estal zezan. Languntzarik beharko zuen noski, ta laguna gugana etorri zen elkarren animoan lana hobeto eginen genuelakoan.

Ez dut izenik aipatuko, ezta aberearena ere, eta hola ez da trufakerietarako lekurik izanen; ahal duenak hartuko dio, bai, hango edo hemengo susmorik...

Hirugarren bizikleta lortu genuen ba, ta, mantso-mantsoan, abiatu ginen Gorritzarango bazter hartara. Lanean egiteko gogorik ez zegoen aski, baina betire hobe izaten da zeozertan aritzea zaudenean egotea baino.

Heldu ginen ta, bizikletak bazterreko sasitan utzita; bordara jo genuen malda batetik behera. Aldapa pikea zen; motza bai, baina latza; zerria estalpetik aterata handik gora igo beharra zegoen...

Ikuilura sartu ginenean zerriek ez ziguten harrera onik egin. Nik aurretik ez nuen holakorik ezagutu inoiz; saltoka hasi zitzaizkigun, kurrinka luzeminetan, beren karioletatik atera nahian bezala... Hura zen hura! Gutariko bat ez zen sartzera ausartu.

Nolabait, muturrean ontzi handi bat jarri eta handik bultza ta bultza eginez, lortu genuen urdeme izuti hura ikuilutik ateratzea. Zezer bazuen harek, eta ez zuen pausorik ere egin nahi. Baina baserri

hartara eraman behar genuen eta ezin ba amore eman...

Batek bidera arto-aleak bota bitartean beste biok ontzitik gogor egiten genion, akuiluari eman ta eman. Baina han ez zegoen zer egiterik. Esan dizuet ba aldapatxo bat igo beharra zegoela; eta ez zigun lan gutxi eman. Nik ez dakit Marino ta beste horiek nola ibiliko diren Tourmalet-eko aldapa horiek igotzeko, baina zerri hura ez zen, ez horixe, batere eskaladore ona!

Noizbaitte heldu gara halere aldaparen gain hartara, ta ez zaigu ba zerria atzekaldera hasi... Han bost metro baziren, gutxi-gora-behera, goitik behera, erreka-zuloraino. Joasss! Atzeko hankak galdu ditu koskatik gu ohartzera. Eroriko ez bazaigu handik edo hemendik heldu beharra daukagu ta, lagunak eskuineko belarritik tira ta nik ezkerrekotik, nolabaitte gureganatu dugu.

Abere harekin etsiak hartuta ginen ta atzera bordara jaistea erabaki genuen. Itzulbidea aixago atera genuen bai...

Hamar minutu beranduago, apurua pasatuxea, atzera herrira jo genuen.

Lehenbiziko gauze lagunaren aitagana joatea izan zen, gure xeblekeria haren berri emateko. Baina ez zion ba grazi handirik egin xeblekeria harek...Goxo jarri zitzaigun! Izan ere ez arrazoirik gabe; semeak okerreko urdemea hartu zuen estaltzera eramateko! Estalita zegoena alegia! Hori duk hori!

FILON

LEITZAKO - MAKILDARIAK (aspaldikoak)

Se conserva por tradición oral, la fama que tuvieron tiempo atrás los MAKILDARIS DE LEIZA.

De ello se nos han transmitido algunas pequeñas anécdotas

Por lo visto, era costumbre que los mozos se alternasen en la visita a los pueblos limítrofes con motivo de las Fiestas Patronales, a cuya comida quedaban autoinvitados.

Siendo así, un día 29 de Septiembre (festividad de San Miguel) Fiestas del pueblo de Huizi, se presentaron un grupo de mozos-makildaris de Leiza, a la hora de comer, en la posada o Casa Concejil de dicho pueblo, esperando poder compartir la comida de dicho día con los del pueblo, que debía de ser una gran olla, a base de mucha carne. -Estando allí charlando, esperando el momento de poder saciar sus apetitos, llegan las 2 y 3 de la tarde, sin que al parecer nadie les señalara sentarse a la Mesa. En este momento, y siendo para para ellos una hora límite, debieron decidir que si no existía comida para ellos, tampoco la iban a disfrutar los vecinos del Lugar. -En

estos casos parece ser que la consigna era la de "ANI-MUNI, TO-KANDELA, YOZAK-BELA" (que significa toma el garrote y ejecuta rápido), como así debió suceder. -La pena es que quedaran las ollas destrozadas y la comida esparcida por el suelo y sin provecho para nadie; volviendo de vuelta, los makildaris "muertos de hambre" a Leiza, satisfechos de su hazaña.

Otra anécdota fue la de MARTIN-AGUERRE, que hacía en su tiempo de jefe de makildaris. -Este mozo marcha un día de Feria de Tolosa a la venta de una vaca de su propiedad, siendo al parecer engañado en el precio de venta, por los feriantes. -Al volver a pie hacia Leiza, un tanto contrariado, se encuentra con un hombre (que no era vascongado), el cual le pide la "hora" en castellano y siendo que Martín-Aguerre no la entiende, no contesta. Por segunda vez le solicita la hora y tampoco recibe contestación. A la tercera petición de "hora" en forma de "escuche, Sr. escuche", en dicho momento el de Leiza, que no estaba para bromas, le contesta en Euskera

"ESCUCHE, BAI ESCUZ-ERE" y le propina una gran paliza, volviendo con esto satisfecho a su casa de Leiza.

Otra anécdota: un día que los makildaris marcharon a Ezcurra, parece ser armaron un gran alboroto en el pueblo y los mozos de Ezcurra, gente fuerte, una vez aprestados, les tendieron una "encerrona", dándoles un fuerte escarmiento.

Parece ser que solamente uno de los de Leiza, se salvó de la paliza, defendiéndose en un ángulo de la as, tan bravamente, que al final fue felicitado por los mozos de Ezcurra, los cuales le dejaron volverse a Leiza, "sin ser tocado"

Este último era hijo de la Casa "Dendarinea", que posteriormente marchó a América, volviendo nuevamente a su choko de Leiza. Esto ocurrió hace unos 150 años aproximadamente, del cual quedan ahora en Leiza, sus descendientes.

Desde aquella fecha no se tienen más noticias de "hechos" de Makildaris.


LEHEN DANTZA

Haize honek mozkorturik
dardara dut nagusi;
muxu birjinaren
lehen dantza,
apala,
eztia,
erraiak pizterainokoa.

Zure ixpilu gardena
gira - bira dabilkit
aidean,
inguruan,
sabelean,
sentsazio berri batez
astindurik.

Iadanik gogoko zaitut,
gogoko dut
gure lehen lotsa,
gure lehen laztan ezkutua.

Estraineko malko artean
askaturik,
loak eraman baino lehen
aske
irudikatzen zaitut.



ATERALDIAK

IÑOREKIN FIATZERIK EZ

JOXEK. -Oraintxe Jainkoarekin besterik ez nak fiatzen. ESKOLABENEKOAK. -Ni harekin fiatzen nak gutxina.

JOXEK. -Zer ba?

ESKOLABENEKOAK. -Hark nahi duna egitten dik eta nahi duna egitten dunakin etzeok fiatzerik!

MILLE PEZTAKO ASKO

Lehenago Aiener baziren behiek, zezena, denda eta taberna. Etxe aberatsa zen Aienera. Hango yabea zen Sebastian, irispobe gaitze. Behin Inaziomari Inaziobarunena motikoa zela yoan zen Aienera erosketak egittera eta Sebastianek esan zion: "Nek bazetit mille peztakoak elkarren ondoan patu eta hemendik elizeraño allatzeko aine."

Inaziomari yoan zen etxera eta bere attuna, Inaziobarun, suen patatak erretzen ari zen. Patata erre asko gustatzen zitzaizkion Inaziobaruni. Kontatu zion Inaziomarik Sebastianena eta Inaziobarunek esan zion:


-Zergatik ez diok galdetu ia infernureño ez al zaizkion allatzen?

IZOZTE HAUNDIE

1956. urtean egin zuen otsail gaisto hure. Hil guzie elurretan yoan zen eta hotz ikaragarrik egin zituen. Leihoetako kristalak eta ateetako iltze buruk izoztute zuri-zuri egondu ziren hilabete guzin. Kolle-zintzarrik ere bai galantak tellatutik zintzilik. Majiñabat piñudi ihartu zen ekaitz hartan.

Mielek enbor su ederra egin zuen, arbi-pertza latzetik zintzilik patu eta yarri zen su ondoan berotzen.

Guaztik ekarritako enborrekin eta lizar muarroakin karobiko sue ainekoa egin nun. Prasa ekusgarrie zegoen. ahuntze mokik ateratzeko modukoa. Azindan lanak eginda yarri naiz su ondoan bero aldi bat hartzen eta bizkarren hotza sumatu nun. Su ederra zeok ba, nion nereko. Eskuk hozten hasi zezketzen eta bizkarren aintziarra egitten. Prasa burnie urtzeko modukoa zeok ba. Arbi-pertzari beidetzen diot eta irakittetik gelditue. Eztit gauz onik. Burtziñe hartute zirikatzen dittot prasak eta denak kollatuk eta elkarri itsatsi eta harrie baño gogorrago egiñek zeuden!



ELTZEITSUE HAUSTEKO BILDUR

Igande atsalde Zen. Luisa eta Maria ixpillun aurren denbora aldie pasatute, bekain bizar sobranteak aterata, ongi pintatuta abitu dire herri aldera. Amak atzetik oihue:

Zeren eltzeitsuri eutsi gero!

GAZTELU

Majinabat parraldi egiñarazita yona da Miel Gaztelu beste mundura Haren txisteeekin liburu koskor bat egin liteke. Lehenago iroteik organizatzen maisue omen zen. Hark yendea goiz mugiarazten omen zuen eskerako, ez orain bezela gabeko bederatzietan bazkaltzera ezin bilduz. Plaza gizona zen. Yendartekoa. Pestetako ezkonduen ingurutxoan aurrelari izaten zen. Plazako ataka haundie haren gain izaten zen itxi-irikia egiteko zezenetako garaian. Peusteneko kongresoan bazuen bere puestoa eta han ere bereak eta bi bota zituen. Eta Gaztelu fontaneroa izateaz gainera futbolaria zen. Bai, bai, egia dot. 1930. urtean Leitzen bazen AURRERA izena zuen ekipoa eta Gaztelu talde hortakoa zen. Laisterraldi ederrak egina zen Inguruarteko futbol-zelaian.



Herrie goratzeko etzen Gaztelu bezelakorik. Orain dela berrogeirenbat urte Oskotzen lanean ari zela hango alkateari esan zion: -Leitzeko herriko etxe guzik eta baserri guzik yoandeneko hogei urte hontan badue ur hotza eta beroa!

BESTEK EGINDAKO MILLONARIOA

Gaztelu arrantzan zebilen asteraun gorrin Gorritzarango errekan, Txantrean aurren, Joxe Korreoanak esan zion: -Adiós capitalista.

GAZTELUK. -Adiós millonario de otro.

BIXTE ONA

Tolatxeneko Enrikek gerra denboran alde egin zuen Ezpeletara.

Urte askoren buruan etorri zen Leitzera eta yoan zen Peustenera. GAZTELUK. -Antiajuk patu dittok eh!

ENRIKEK. -Hik ez al dittok erabiltzen?

GAZTELUK. -Nek bixte ona zeuket oraindik. Etzetzeidek batere yesten hasi. Gazteluk atorran poltsan zeuzken antiajuk eta Enrikek ekusi.


ENRIKEK. -Ez dittokela erabiltzen? Poltsan zertarako dauzkek ba? GAZTELUK. -Lotarako erabiltzen zetit hok!

IZAI

HAUNDIK

Gaztelu Oskotzen ari zen lanen eta han esan zioten: - H e m e n badire arbol izugarrik: kattagorrie p u n t e n ekusi, tiroa tiratu eta ez da allatzen.

GAZTELUK. —Gureherrin badire izaiak, kattagorrie p u n t e n ekusi, tiroa tiratu eta aditu ere ez du egiten!



KANPOAN BIZITZEKO GOGORIK EZ

Herri batean lanen ari zen Gaztelu eta denboraldi baten burun etorri zen Leitzera. Miel Joakin Inaziobarunenak galdetu zion: -Zer moduz bizi haiz han, Gaztelu?

GAZTELUK. -Han bizi motell, han bizi bano askoz ere hobe dik Leitzen hill!

BERRIZKO GOGOAK KENDU

Ehiztari amorratue zen Gaztelu. Akution egun guzie pasatute heldu zen etxera eta bare baten gainean irristatu eta hankaz gora erori zen. Zutitu, eskupeta hartu eta danba, danba, bi tiro bareari. -Beste bati ez diok berriz hori iñen!

MEAKAKO ITTURRIE

GAZTELUK. -Leitzen den itturrik hobena Meakako itturrie dok. Nek han pasatzen naizenen zatotik ardo trago bat itten dit eta hori bezelakorik ez dok!

UREPELGO MUGARRIE 1691-1991 HIRUREHUN URTE

Zenbat ekaitz
zenbat erauntsi
hik halare ez etsi.
Itxasoko orroak
gizonen gorrotoak
eguzki beroak
ausaroak
egun zoroak
ez beti gozoak.

Azeri,otso eta hartzak
ardi,behor eta betizuak
hire harri urdinean hazkatuak.
Artzaiek ziztu eta kantari
ardik kulunke eta zintzarri
hi denak entzuten geldi-geldi.

Txondorretako keiak
oletako kabi hotsak
hauspo eta haize arkak
labeetako burni gorituak
hik galdurretik sumatuak.
“Hiru otxoko” elurtea
kazkarabar eta tximistak
zer zanpatakoa haritzaki

Leitzetik Aranora
Aralarko San Miel Aingerue
zenbat aldiz zapaldu hire ingurue.
Zenbat kontrabandista,zenbat maki
hik hizketan baieki!

Orain hegazkiñek eta sateliteak egunero
ordenadoreak eta in vitro
hire inguruan ardi perakatuak eta lau zikiro
segi zak hor luzaro.



SAGU ETA SATOR

Musika egiteko mota ezberdina

“Triki - Heavy - Rock - Punk”

Orain dela urte pare bat grabatu zuten beren lehendabiziko Lpa, eta orduan ez zuten pentsatzen horrelako arrakasta eta popularitatea lortuko zutenik. Bi urte hauetan beste bi Lp grabatu dituzte, eta dagoeneko zai daude noiz sartuko estudioetara beren laugarren Lpa grabatzera. Bi urte hauetan esperientzi bitxiak izan dituzte, batzuk gainera oso publizitate haundikoak, bai herrian eta herritik kanpo.

Ikusi dezagun zer kontazen duten bi taldekide hauek. Nola hasi zineten musikaren munduan?

Sagu: Ni kordeona jotzen hasi nintzen gaztetatik, betidanik gustatu zait.

Sator: Ni berriz orain dela urte batzuk, beste lagun batzukin fianbrera eta katxarro batzukin bateria jotzen genuen.

-Espero al zenuten horrelako arrakasta?

Hasieran ez, baina denborakin ohartu ginen jendeari gustatzen zitzaioela gure martxa, eta gure kantak kaletik entzu ziren

-Zein dira zuen Lpetako tituloak?

Lehendabiziko Lpa, orain dela bi urte grabatu genuen “20 años de exitos bigarrena berehala etorri zen, kanta pila bagenuen eta “Gero ta obe”. Azkena, eguberritan grabatu genuen “Dianaz Diana” zen bere tituloa.

Eta kanta politenak?

Gure eritziz, lehenengo Lpkoa “Bols de Aldaz” delakoa. Bigarren Lptik “Iturengo iturrian”.

-Zuen instrumentoak akordeoia eta panderoa, zuen musika oso ezberdina, nola daiteke hori? Guk musika estilo askori ematen diogu, zaila dena ongi jotzea da.

-Orain arte zein izandu da zuen konzierto garrantzitsuenak?

Galdera zaila egin diguzu, Oso polita labarko pestatakoa izan zen, beste saio on bat tabernak itxi zizkiguten hartan egindakoa, zoragarria izan zen. Aipatuko genuke baita ere amazabalen saio bikain bat burutzen ari ginela, ur balde bat bota zigutela lehenbiziko pisu batetik.

-Hirugarren Lpa grabatu zenutenean, laguntzak



izan zenituzten, zer moduzkoak izan ziren?

Hirugarren Lpan estiloz pixka bat aldatu nahi izan genuen, horretarako koroak egiten zizkiguten neska talde bat hartu genuen, gainera beste instrumentu batzuk sartu genituen (atabala, tronpeta, bonboa eta txapak) baita

bigarren ahotsa egiten zizkiguten-bi lagun.

-Estudios Luzetxe...

Gure grabaketak egiteko erabili ganuen lokala, hasiera batean gurekin ez zuen inork ezer jakin nahi eta, baina orain denak...

-Sagardotegietako aktuazioak...?


Sagardozaleak musikazaleak dira ere, eta guk sagardotegietan gustora jotzen dugu. Giroa aproposa baita gure musikarekin dantza egiteko.

-Noraino,..?

Ez al dugu nahikoa egin?

-Bukatzeke zuekin nola kontaktatu daiteke?

Gurekin harremanean jartzeko, Arinaldeko Zaragozanoakin hitz egin, dena dela gure kotizazioa gora dioa...




ANA

* Jenerari denda
* Festa zorionizua
opa dizkione

PATXI ARRAZOLA, 9

Leitza



Chimeneas GAZTELU

Sistemas de

Calefacción AGUA Y AIRE

EXPOSICION:

Elgoien, 32 - LEITZA
(Navarra)



TALLER DE CANTERIA
TRABAJOS EN PIEDRA Y MÁRMOL
REVESTIMIENTOS DE FACHADAS DE PIEDRA
ARCOS, ZOCALOS, ESCALERAS,
FOGONES "ESTILO VASCO"
CRUCES Y LAPIDAS
CHIMENETAS Y TODA CLASE DE TRABAJOS
EN PIEDRA

TRANSPORTES

LES DESEA FELICES FIESTAS

Telfnos.: Taller 51 04 47
Domicilio 51 01 11

LEITZA (Navarra)

Pedro Telletxea

- Construcciones
- Albañilería en general

P. Arrazola, 12, 2.º A - Tel. 510580

Jai zoriontzua opa dizkizue

Martin Lizarraga

Carnicería y Charcutería

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Telefono 510283

Gregorio Sagastibelza

Constructor y Albañilería en general

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 51 00 59

LEIZA

FOTO MUGICA ARGAZKIAK

MONTAJES DE IMAGEN Y SONIDO, COPIAS, ETC.

FOTOS CARNET EN EL ACTO
MARCOS
FOTOCOPIAS
GAFAS DE SOL

GRABACION VIDEO y FOTOS

BODAS
HOMENAJES
FIESTAS

ESTUDIO EN

C/ OBISPO HUARTE

TFNO. 51 04 40

LEIZA

EROSLE

Supermerkatua

Tfno.: 51 00 36

“BIOK” JANTZIAK

Gizonezko, Emakume eta Leitza umeentzako jantziak.

Elbarren 32 kalea

«GAZTETXO»

Goxotegi eta jolas lekua

Pesta zoriontsuak opa dizkizue

JANARI DENDA ZABALETA

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

TEL: 51 04 28

LEITZA

TXOKO

Taberna, Jatetxea
Ostatua, mantenu osoa

JAI ZORIONTZUAK OPA DIZKIZUE

Tel.: 51 02 27

Oparigaiak, kirolgaiak, e.a.

ARDOTEGIA

LENITZ

ARDO ETA LIKORETAKO BILTOKIA
INSALUS, SAN MIGUEL GARAGARDOA
ETA COCA-COLAREN BANATZAILEA


FESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

TEL: 51 03 33 eta 51 04 86

LEITZA

TXAPA PINTURA LEITZA KARROZERIA

TXAPA KONPONKETA, KABINAN EGINDAKO PINTAKETA
ETA LABEAN EGINDAKO LEHORKETA, KOLPE HAUNDIEN
KONPONKETA (BANKADA)



LEITZA - LARREKO ERREPIDEAN - Tel. 51 04 60 - 51 05 58 (Etxekoak) - LEITZA

**MANDRILADORA
LEIZA**

S. Coop. Ltda.
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE



Fabrika Geltokia A., z/g Tel.: 510.262 LEITZA

**TABERNA, ERRETEGIA
MENDIZABAL**

Txuleta eta bisigu erretan espezialitatea
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Elgoien, 22 Tel.: 510.128 LEITZA

Herbodietética BELARRA

Janari denda

Elarren, 35
Tfno. 51 01 92
Leiza

*Jai zoriontsuak,
opa dizkizue
zorionak*

GARAGE LEITZA

AMAZABAL, 29 KALEA

BEREBILL KLASE GUZTIETAKO
KONPONKETAK ETA EROSI SALDUKETAK
PEUGEOT-TALBOT AGENTZIA
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE
TEL: 51 04 66 LEITZA

Astiz Zurgindegia, s.l.

Sukaldeko eta bainuko haltazariak
Pesta zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 02 85 Leitza



Carrocerías URTO

Reparación de Chapa y Pintura

Jesús Azurmendi Jauregi

Casa Camineros
BERASTEGUI

Teléfono. 943 - 69 32 43
948 - 61 06 64

**Ignacio
Arrarás**

Bodegón - Vinos, Sidra
y licores
Cervezas El León y Codorniu
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tel. 51 03 53

**SUCESIONES DE
JOSE
GOMEZ**

COMERCIO DE TEJIDOS
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tfno. 51 01 30

Vda. de Lázaro Erviti

SERRERIA MECANICA

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Teléf. 51 00 08 LEITZA

**ARIZTIMUÑO ANAIK
ERAIKINTZAK**

Lan orokorrak eta berrikuntzak
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Tel.: 510.374

LEITZA

BIKOITZ

Gozotegia - Taberna

Tarta, pastel eta opiletan espezialitatea
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Elbarren, 16

Tel.: 510.072

LEITZA

ASTIZ

LIBURUDENDA eta PAPERDENDA

Eskolarako eta kiroltarako gaiak

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Elbarren, 28

Etxeko tel.: 510.405

MAPFRE

MUTUALIDAD DE SEGUROS
Una organización a su servicio

Telefono: 51 04 99

Jai zoriontsuak opa dizkizue

GURATZ-MENDI

K. K. J. ELKARTEA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elgoien, 1

LEITZA

RODRIGUEZ ETA ERASO LANTEGIA

 RENAULT zerbitzua

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 510.259

Elgoien kalea, 15

Irurak

ARRANDEGIA

*Eguneko arrainak
mariskoak*

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 510.491

Elbarren K. LEITZA

KORNIETA ELKARTEAK

Jai zoriontsuak opa
dizkizue

LEITZA



JOSE ETXEBERRIA

GIZONEZKOENTZAKO
ILEAPAINDEGIA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LEITZA Tel.: 510.282

"GARBI"

Garbigaidenda

Usaidenda eta

Jostailudenda

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 510.173

PLAZA Autoeskola

SEGUROS - GESTORIA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Huarte Gotzaia K., 8

LEITZA

Tel.: 510.338



PERURENA HARATEGIA

Hemengo zekorretan
espezialitatea Urdaitegia

Tel.: 510.164

Jai zoriontsuak opa dizkizue



ERBITI AIZKORAK

Tomas Erbitiren alarguna
Aizkol txapelketetarako
aizkora garantizatuen fabrika

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 510.060

AZPIROZ ETXEA

JANTZI DENDA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 51 02 46 LEITZA

KOXME ZABALETA

Ultramarinos

Pesta onak opa dizkizuegu

LEITZA

«ELKAR»

Ileapaindegiak

Pesta onak opa dizkizue

LEITZA

BASA-KABI HOTELA

Jatetxea, logelak
SNACK BAR

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LEITZAKO GAINA

Tel.: 510.125

GAZTAÑAGA Taberna

Ogitartekoak, pintxo beroak, kaxuelak

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 51 04 34

ETXE - TRESNAK

ARGI-INDAR INDUSTRIALA
HIFI - TELEBISTA - BIDEO

RADIO eta TELEBISTEN KONPOKETA
TELEBISTARAKO ANTENA JARTZEA
ELETRICIDAD INDUSTRIAL
T.V. - HIFI - VIDEO

REPARACION DE RADIOS - TELEVISORES
INSTALACION DE ANTENAS DE T.V.

Urrutizkinak: 51 02 08 - 51 01 81

LEITZA (NAFARROA)

JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE

MERTZERIA DENONTZAT

Jostun tresnak, galtzerdiak eta azpiko arropa
Tfnoa: 51 05 61

Pesta zoriontsuak opa dizkizue

LEITZA

CHAPA - PINTURA - KARROZERIAK

GURIA
(P. KALDERON)

«REPARACION DE VEHICULOS. PINTADO EN
CABINA, SECADO AL HORNO»
PINTURAS NACARADAS - PERLADAS
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

TEL.: 51 02 55

LEITZA

LANDA TABERNA

Giro jatorra musika ederra

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LEITZA

JOSE
MIGUEL
URKIOLA
ESNEKIAK

Jai zoriontsuak opa dizue

LEITZA

OIALDE
TABERNA

Bazkalaurrekoak
eta ogitartekoak
Kafeak, ardoak
eta likoreak

jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel: 510.077

LEITZA



CITROËN

SARALEGI

Jai zoriontsuak opa dizkizue

TEL. 510490

LEITZA

**JOSE IGNACIO
ARZALLUS**

Harategia - Urdaitegia

HEMENGO GAZTAK

Jai zoriontzua opa dizkizue

LEITZA
Tel.: 510.377

BERASTEGI
Tel.: 674.534

**KAFETEGIA
GOZOTEGIA**

NEKANE

TEL: 51 0328

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LEITZA

SE RECOPEN ENCARGOS DE
TARTAS Y PASTELES

ARAKINDEGIA

JATETXEA

Jai zoriontsuak
opa dizkizue

Tel. 510052

LEITZELARREA AROZTEGIA

Herrería, carpintería metálica

Elbarren, nº 58 Tel. 51 00 60

31880 LEITZA (Navarra)

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

J.A. URKIOLA
Harategia, Urdaitegia

Idi haragitan eta hemengo Zekorretan espezialitatea

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Tel.: 510.467

LEITZA

IGARATZA

Poligono Industrial Albisualde, s/n
Tfno. (948) 50 44 10 • Fax (948) 50 44 40
LECUMBERRI (Navarra)

ERAIKETARAKO MATERIALAK

- P.V.C.zko. tuberiak
- Polietileno zko tuberiak
- Ormigoie zko tuberial
- Burdinlanak
- Adreiluak
- Porlana
- Igeltsoa
- Blokeak
- Mota askotako teilak

ISOLAMENDUAK

- P.V.C.zko leihoak
- Teilatu faltsoak
- Segurtasun materialak

MATERIALES DE CONSTRUCCION

- Tubería P.V.C.
- Tubería polietileno
- Tubería Hormigón
- Forjados
- Ladrilloa
- Cemento
- Yeso
- Bloques
- Teja varios modelos

AISLAMIENTOS

- Ventanas P.V.C.
- Falsos techos
- Material de seguridad

AURREKONTUAK EGITEN DIRA

SE HACEN PRESUPUESTOS

KERAMIKA ETA BAINU, BAINUGELARAKO TRESNARIA, GRIFO ETA
KOMUNAK, MANPARAK, ETA ABARREN ERAKUSKETA HANDIA.



**BANCO DE
VASCONIA**

**Leitzar eta bisitari guztiak
pesta goxo batzuk pasa dezazuela**

LEITZA

Tel.: 51 01 38

Arrandegia Kaia

Pescados y mariscos selectos

*jai zoriontsuak
opa dizkizue*

C/ Elgoyen, 20
Telf. 61 07 33

Leiza

Ana Arraindegia

Eguneko arraiak
eta izoztuak

*Jai zoriontsuak
opa dizkizue*

Urritzkinak: 61 06 81
51 01 18

**Jesús
Bulela**

Carnicería y Charcutería
Tratante de ganado

Teléfs. 51 01 67

**BELEN
Oinetakoak**

D.N.I. 34.089.484
Calle Elbarren, n.º 52
LEIZA
(Navarra)



Sukalde eta bainu ekipamenduak
Fabricación de Cocina y Baño

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Kalitatearen ezaugarria
El símbolo de la calidad

Tfno. 510311

Fax 510529

"PITXIK"

PAPERDENDA eta
OPARIAK

Jai zorientsuak
opa dizkizue

F. J. SAENZ

PINTURAS OROPAL

LEIZA Tel. 51 00 49

IZOZTUEN ETXEA

Todo tipo de congelados

- Precocinados,
- Marisco,
- Charcutería

Elbarren, 80 • Tfno.: 61 07 49

CONSTRUCCIONES
**SAGASTIBELZA Y
ARTOLA**

Albañilería en general


Elbarren, 86-2.º izq.
Tfno. 51 02 65

LEIZA (Navarra)

F. J. SAENZ

PAPEL PINTADO

LEIZA Tel. 51 00 49



**Azpiroz y
Saralegui**

- Zerbitzu orokorreko herrilanak
- Eroate lanak
- Hirigintz lanak
- Indusketak
- Ormigo armatua
- Ormigoiezko errei eta arekak
- Obras públicas
- Conducciones
- Urbanizaciones
- excavaciones
- Hormigón armado
- Viales y cunetas de hormigón

Obrek direla eta sortzen ditugun arazo eta eragozpenen aurrean izan duzuen ulerkortasuna eta jarrera ona eskertu nahi dizuegu.

Queremos agradecerles su buena disposición y comprensión ante las molestias que les estamos ocasionando con las obras de Leitza.

CONSTRUCCIONES AZPIROZ Y SARALEGUI

OFICINAS

Alfonso el Batallador, 8
31007 PAMPLONA
teléfonos: (948) 17 48 32
17 48 33

Polg. Industrial Albisualde, s/n
31870 LECUMBERRI (Navarra)

DROGUERIA-PERFUMERIA
MARIA ANGELES

Tel. 51 01 86

LEITZA (Navarra)

LEITZATARRA Taberna

IREKITA GOIZEKO 7'30 ETATIK

Tel.: 510.352

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

TALLERES

LAZCANO

Venta y reparación de todo tipo de
maquinaria agrícola, bicicletas y motos

Jai zoriontsuak opa oizkizue


Gorritzaran, 41 Tfn. 51 04 04 LEITZA

KAFETEGI
EDARITEGIA

XAXARI

Jai zoriontsuak opa dazkizue

Elcoyen, 6 Tif. 51 03 75 LEITZA




SARRIÓ, S.A.

*Jai zoriontsuak opa dizkizue
Herritar eta bisatari guztiei*

*Ongi izan, Leitza
Gora San Tiburtzio!*

GANI

**NAFARROAKO
AURREZKI KUTXA**



**JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE**

